

# Eskura

ZUMAIAKO UDAL ALDIZKARIA · 2022ko uztaila · 05

## Kiroldegia berritzeko proposamena

06

ZKOOP,  
bide baten  
hasiera  
12

Zumaia  
euskaraz  
bizitzeko da  
17

IV. Berdintasun  
Plana osatzen  
33

Zumaiako  
Udala



ZUMAI  
BIZITZEKO  
DA

ESKURA  
Zumaiako udal aldizkaria  
2022ko uztaila  
5. zenbakia  
Lege gordailua  
LG D 00145-2020

Zumaiako  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

Twitter: @zumaiakoudala  
Facebook: Zumaiako Udala

**UDALETXEA:** Foruen plaza · 943 86 50 25 ·  
udala@zumaia.eus · www.zumaia.eus ·  
**Udako ordutegia:** 08:00-14:00



Alkatearekin, zinegotziekin  
eta oposizioko taldeekin  
harremanetan jartzeko:

### **UDAL GOBERNUKO KIDEAK. EH BILDU**

**Alkatea:**

Iñaki Ostolaza  
alkatea@zumaia.eus

**Hirigintza, ingurumena,  
zerbitzuak eta auzoak:**

Iñaki Ostolaza  
alkatea@zumaia.eus

**Tokiko garapena, ekonomia  
sustapena eta turismoa:**

Alex Oliden  
aoliden@zumaia.eus

**Ogasuna:**

Arantxa Gajate  
agajate@zumaia.eus

**Pertsonala:**

Asier Arakistain  
aarakistain@zumaia.eus

**Euskara eta hezkuntza:**

Maddi Aldalur  
maldalur@zumaia.eus

**Kirolak:**

Arritxu Iribar  
airibar@zumaia.eus

**Kultura:**

Marina Bidasoro  
mbidasoro@zumaia.eus

**Gizarte zerbitzuak:**

Jose Mari Azkue  
jazkue@zumaia.eus

**Berdintasuna, gazteria,  
aniztasuna eta parte hartzea:**

Maider Alberdi  
malberdi@zumaia.eus

### **EAJ UDAL TALDEA**

eaj@zumaia.eus  
622 699 419 (deiak eta WhatsApp mezuak)

### **PSE-EE UDAL TALDEA**

arritxu-maranon@socialistas-  
guipuzcoanos.com





Iñaki Ostolaza Esnal  
**Zumaiako alkatea**

### **Zumaiar agurgarria:**

Udako martxan erabat sartuta gabiltza denok ere. Hilabeteotan Zumaiak argi berezia izan ohi du: jaiak, errioko bainu jendetsuak, hondartzako ilunabar eder-  
rrak, eta lagunartean zein senideekin pasatako egun luzeak. Guztiok behar ditugun gauzak dira. Are gehiago, bizi dugun garaia ikusita.

Pandemiaren ondorenak, gerra eta krisi ekonomiko hotsak, etorkizun ziurgabea... Kezkaz bizi ditugun garaiotan, balora eta goza ditzagun momentu horiek guztiak, eta lagun, senide, auzoko, herrikide... horien ondoan egon gaitezen. Benetako "sare sozial" horiek duten balioa neurtezina baita.

Besterik gabe, uda ederra opa dizuet herrikide guztiei. Goza dezagun eta ez diezagutela irribarrea lapurtu.

**Ondo pasa!**

### **Estimado/a zumaiarra:**

*Todas y todos estamos ya en plena marcha del verano. Durante estos meses Zumaia tiene una luz especial: las fiestas, los baños multitudinarios en la ría, los hermosos atardeceres en la playa y los largos días en compañía de amigos/as y familiares... Son cosas que todas y todos necesitamos. Más aún en esta época que vivimos.*

*Las secuelas de la pandemia, los ecos de la guerra y la crisis económica, el futuro incierto... En estos tiempos que vivimos con preocupación, valoremos y disfrutemos de todos esos momentos y compartámoslos al lado de amigos/as, familiares, vecinos/as... Porque el valor que tienen esas auténticas "redes sociales" es inmedible.*

*Simplemente, os deseo un buen verano a todos y todas las zumaiarras. Disfrutemos y que no nos roben la sonrisa.*

**Ondo pasa!**

Zumaia bizitzeko moduko herria izatea helburu duten 98 proiektu eta ekimenek osatzen dute 2019-2023 Gobernu Plana.

Gobernu Planaren jarraipenerako prestatutako webgunean kontsultatu dezakezu ekimen bakoitza zertan den:

**[bizitzekoda.zumaia.eus](http://bizitzekoda.zumaia.eus)**




Zumaia  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA






**06**  
**Kiroldegia berritzeko proposamena**



**12**  
**ZKOOP, bide baten hasiera**




**15**  
**zumaianbai.eus, herriko negozioen erakusleiho birtuala**



**17**  
**Zumaia euskaraz bizitzeko da**



**23**  
**Geuretik sortuak**



**25**  
**Egutera, geroz eta gertuago**



**28**  
**500.000 euro, herritarren esku**



**31**  
**Etxebizitza turistikoak arautzear**



**33**  
**IV. Berdintasun Plana osatzen**



**36**  
**Mugakideekin hitzarmena**

**37 LABUR AZKEN ALBISTEAK • 41 LABUR OBRAK •**  
**45 GERTUTIK UDALEKU ESKAINTZA • 46 ATZO GAUR DA •**  
**48 ELKARRI ENTZUN • 50 KLISK! • 52 AGENDA**

# Kiroldegia berritzeko proposamena

Bigarren igerileku bat aurreikusten du aurreproiektuak, lau kalekoa, baita kiroldegia barrutik eta kanpotik berritzea ere. Udalaren asmoa da 2023ko aurrekontuetan lan horien proiektu idazketa sartzea.

Azken urteotan Zumaia asko hazi da, eta gauza jakina da kirolak garrantzi handia duela gure herrian. Kirol klubek eta hainbat zumaiarrek kirol azpiegiturak handitzeko eta hobetzeko eskatu izan dute azken urteotan, eta udalak, eskaera horiei erantzun nahian, kiroldegia berritzeko eta igerileku berria egiteko aurretiko azterketa bat landu du arkitekto talde batekin.

Horrela, udalak jada prest du kiroldegia berritzeko eta lau kaleko bigarren igerileku bat egiteko aurreproiektua. Gainera, barne antolaketa hobetzea ere bada asmoa: bi areto berri sortu eta aldagela gehiago egingo dira. Eta, horiez gain, fatxadan eta azpiegituran ere berrikuntzak egin nahi dira, kiroldegiaren egoera orokorra hobetzeko.

Hori horrela, azken hilabeteotan oposizioko ordezkariekin eta kiroldegia erabiltzen duten klubetako ordezkariekin bildu dira Iñaki Ostolaza alkatea, Arritxu Iribar kirol zinegotzia eta Antxon Alberdi kiroldegiko ardura-duna, proiektuaren berri emateko.





Atendiendo a las demandas de la ciudadanía y los clubes deportivos de la localidad, el Ayuntamiento ha realizado un estudio previo con un equipo de arquitectos para la renovación del polideportivo y la construcción de la nueva piscina.

Así, el Ayuntamiento tiene ya preparado el anteproyecto de reforma del polideportivo y una segunda piscina de cuatro calles. Además, la idea es mejorar la organización interna: se crearán dos nuevas salas, así como más vestuarios. Junto a todo ello, se realizarán también reformas en la fachada y en la infraestructura, para mejorar el estado general del polideportivo.

El alcalde, Iñaki Ostolaza, la concejala de deportes, Arritxu Iribar, y el responsable del polideportivo, Antxon Alberdi, se han reunido en los últimos meses con representantes de la oposición y de los clubes usuarios del polideportivo para informarles del proyecto.

## Kiroldegia berritzea

Kiroldegia barrutik eta kanpotik eraberritzea da aurreproiektuko elementu garrantzitsuetako bat.

Alde batetik, aldagela gehiago edukitzea lortuko da, eta lehengoan egoera hobetuko da gainera.

Bestalde, erabilera anitzeko bi areto berri sortu nahi dira, 265m<sup>2</sup>-koak, ikastaroetarako eta bestelako ekin-tzetarako.

Azkenik, kiroldegiaren fatxadan hobekuntzak egitea eta eraginkortasun energetikoarekin lotutako neurriak hartzea aurreikusten da.


Un elemento importante del anteproyecto es la reforma interior y exterior del polideportivo.

Por un lado, se conseguirá que haya más vestuarios y se mejorará la situación de los mismos.

Por otra parte, se prevé la creación de dos nuevas salas polivalentes de 265 m<sup>2</sup> para cursos y otras actividades.


Por último, se prevé realizar la reforma de la fachada y tomar medidas encaminadas a mejorar la eficiencia energética.

Irudiak: UNEA images



**SOtoa.** Erabilera anitzeko bi areto berri izango ditu kiroldegiak. Gainera, aldagela berriak sortu eta lehengoak berrituko dira.

**SOTANO.** El polideportivo contará con dos nuevas salas polivalentes. Además, se crearán más vestuarios, y se mejorará su situación.



**BEHE SOLAIRUA.** Bigarren igerileku bat eraikiko da, lau kalekoa, gaur egungo igerilekuaren aldamenean. Gainera, tenis pista edo erabilera anitzeko pista bat sortzea aurreikusten da.

**PLANTA BAJA.** Se construirá una segunda piscina, de cuatro calles, junto a la actual. Además, se prevé la creación de una pista de tenis o multiusos.

---

## Bigarren igerilekua

Bigarren igerileku bat eraikitzea aurreikusten du aurreproiektuak. Lau kale izango lituzke, eta gaur egungo igerilekuaren ondoan egingo litzateke, tenis pista dagoen aldean. Igerileku berriaren alboan joango lirateke tenis eta padel pista berriak, jarraian.

---

*En el anteproyecto se prevé construir una segunda piscina, de cuatro calles. Se ubicaría junto a la piscina actual, donde se encuentra la pista de tenis, a la que seguirían las nuevas pistas de tenis y pádel.*

---

## 2023an proiektu idazketa

Udalaren asmoa da 2023ko aurrekontuetan lan horien proiektu idazketa sartzea, lanei ahal den azkarren ekiteko. Edonola ere, Zumaiaiko Udalak nabarmendu nahi du lan horien proiektua osatzeko eta martxan jartzeko epeak luzeak direnez, eta kontuan hartuta kostu handia izango dutela, ez dela epe laburrean eginda egongo den obra bat.

Bitarte horretan, finantziario bide posibleak mahai gainean jarri eta udaleko alderdi guztien adostasunarekin lotzea da udal gobernuaren asmoa. Horregatik aritu da azken hilabeteotan oposizioko kideei zein kiroldegiko erabiltzaile diren kirol klubei aurreproiektua azaltzen, eta Gipuzkoako ahalzun nagusiari ere aurkeztu diote proposamena.

---

*La intención del Ayuntamiento es incluir en los presupuestos de 2023 la redacción del proyecto de estos trabajos, para poder acometerlos lo antes posible. En cualquier caso, el Ayuntamiento de Zumaia quiere destacar que dado que los plazos para completar y poner en marcha el proyecto son largos y que el coste será elevado, no se trata de una obra que pueda estar ejecutada a corto plazo.*









*Durante ese tiempo, el Gobierno municipal tiene por objetivo poner sobre la mesa las posibles vías de financiación y vincularlas con el consenso de todos los partidos del Ayuntamiento. Es por ello que durante los últimos meses se ha reunido tanto con los partidos de la oposición como con los clubes deportivos usuarios del polideportivo para darles las oportunas explicaciones sobre el anteproyecto, propuesta que también han presentado al diputado general de Gipuzkoa.*

---

## **Futbol zelairako proposamena**

Azkenik, futbol zelairako ere proposamen berria du udalak, eta dagoeneko Zumaiaiko Futbol Taldearekin bildu da haren berri emateko.

Aurrerago emango dituzte futbol zelaiarekin lotutako zehaztasunak, lanketa berezia behar baitu, kiroldegia eraberritzeko aurreproiektutik apartekoa.

---

*Por último, el Ayuntamiento también tiene una nueva propuesta para el campo de fútbol y ya se ha reunido con Zumaiaiko Futbol Taldea para informarle de la misma.*

*Los detalles relacionados con el campo de fútbol se darán a conocer más adelante, ya que requiere una elaboración independiente del proyecto de reforma del polideportivo.*








## Itsas kiroldegian hobekuntzak

62.140 euro

Eraikinaren egoera orokorra hobetzeko ate berriak jarri eta paretak txukundu ditu udalak. Leiho berriak jarriko ditu orain, eta terrazako zorua ere berrituko du.

*Obras de mejora en el polideportivo marítimo. El Ayuntamiento ha instalado nuevas puertas para mejorar el estado general del edificio y ha mejorado el estado de las paredes. Ahora colocará nuevas ventanas y también renovará el suelo de la terraza.*



## Kiroldegian makineria berria

18.112 euro

Lubaki kiroldegiko gimnasia kirol makineria berria iritsiko da laster: pesa eremurako makina berriak izango dira zehazki.

*Nueva maquinaria en el polideportivo. Al gimnasio del polideportivo Lubaki llegará en breve la nueva maquinaria para hacer pesas.*




## Futbol zelaian kaseta berriak

17.680 euro

Zumaiako Futbol Taldearen eskaerak kontuan hartuta, bi kaseta berri jarri ditu udalak futbol zelaian. Orain arte erabiltzen zuten gunea txiki gelditua zitzaien.

*Nuevas casetas en el campo de fútbol. Teniendo en cuenta las peticiones del club de fútbol Zumaiako, el Ayuntamiento ha instalado dos nuevas casetas en el campo de fútbol. La zona que utilizaban hasta ahora se les había quedado pequeña.*



## Kirol taldeen garajea egokitzea

9.850 euro

Txirrindularien, motorzaleen eta piraguisten elkarteek Kantaurin erabiltzen duten garajea moldaketak egin dira. Elkarteen beharrei erantzunez, hiru eremutan banatu da.

*Arreglos en los garajes de los clubes deportivos. Se han realizado arreglos en el garaje situado en Kantauri. El espacio es utilizado por tres clubes deportivos (motoristas, piragüistas y ciclistas), por lo que se ha dividido en tres zonas. •*

# ZKOOP, bide baten hasiera

Ekintzailtza kooperatiboa, ekonomia sozial eta eraldatzailea, eta tokiko garapena bultzatzea da ZKOOP programaren helburua. Formakuntza saioekin hasi zuten bidea, eta proiektuen bidelaguntza dagoeneko abian dago. Ikasturte berriarekin batera elkarlangunea martxan jartzea da asmoa.

Zumaiako Udalak eta OlatuKoop sareak lankidetzan sustatutako programa bat da ZKOOP. Hogarra izan da proiektu horren erreferentziatzko gunea, bertan kokatuko baita elkarlanerako zentroa, “lanerako tokia, eta ekonomia sozial eta eraldatzailearen topalekua”.

Tokiko garapenean sakondu eta egitasmo berriak sortu nahi dituzten zumaiarrei laguntzea da helburuetako bat, betiere ekonomia sozialaren

eta kooperatibismoaren esparruko esperientzietatik abiatuta. Horretarako, hiru pausoko programa bat abiatu zuten: jardunaldi irekia egin zuten martxoaren 2an, ZKOOP fabrika egin dute martxotik ekainera bitartean, eta aukeratutako proiektuak tutoretza saioak jasotzen ari dira orain. Gainera, behin edukiak landu ostean, espazio bat egokitu dute aldi berean: Hogarean elkarlan edo *coworking* zentro eraldatzailea jarriko dute martxan.

Gorka Julio OlatuKoopeko kidearen esanetan, egitasmo honen bidez “Zumaian sustraitutako” proiektuak bultzatu nahi dituzte. Izan ere, “ekonomia sozial eraldatzaileaz ari garenean, proiektu profesional hutsez harago, herriari eta komunitateari ekarpena egiten dioten proiektuez ari gara”. “Coworking kontzeptuaz ulertzen dena gainditu” nahi dute. Asmoa elkarlangune bat sortzea da, lanerako toki bat izateaz gain, “Zumaiaren eta zumaiarren beharrei erantzungo dieten proiektuak hauspotzeko balioko duena”. Zumaiako alkate Iñaki Ostolazak azaldu duenez, “bide-orri hau lehen pauso bat da: Zumaian ekonomia sozialaren eta ekintzailtza kooperatiboaren bidearen hasiera”.



ZKOOP es un programa promovido conjuntamente por el Ayuntamiento de Zumaia y la red OlatuKoop. El Hogar ha sido el centro de referencia del proyecto, ya que es donde se ubicará el centro de colaboración, lugar de trabajo y lugar de encuentro de la economía social y transformadora.

Uno de los objetivos es apoyar a los y las zumaiarres que quieran profundizar en el desarrollo local y poner en marcha nuevos proyectos, partiendo de experiencias de la economía social y el cooperativismo. Para ello, se puso en marcha un programa formado por tres pasos: el 2 de marzo celebraron una jornada abierta, entre marzo y junio han





estado inmersos en el desarrollo de la fábrica ZKOOP, y ya están en marcha las sesiones de tutoría de los proyectos seleccionados. Paralelamente, una vez trabajados los contenidos, han adaptado en el Hogar el espacio de trabajo que servirá como centro de colaboración o coworking transformador.

Gorka Julio, miembro de OlatuKoop, asegura que, con este proyecto, se pretende impulsar proyectos enraizados en Zumaia, “porque cuando hablamos de economía social transformadora, más allá de proyectos meramente profesionales, hablamos de proyectos que aporten a la localidad y a la comunidad”. El objetivo sería superar lo que se entiende por “coworking” y crear un espacio de trabajo colaborativo que, además de ser un lugar de trabajo, sirva para impulsar proyectos que respondan a las necesidades de Zumaia y los y las zumaiaarras. En palabras del alcalde Iñaki Ostolaza, este es un primer paso, el inicio del camino hacia la economía social y el emprendimiento cooperativo en Zumaia.

## ZKOOP fabrika

Hamabi laguneko talde batek bost formakuntza saio trinko jaso ditu martxotik ekainera bitartean, eta gai hauek landu dituzte: ekonomia sozial eraldatzailea, kooperatibismoa eta lanaren burujabetza (Beñat Irasuegi); tokiko garapen eraldatzailea, lurralde (herri) bizigarriak sortzeko bidea (Andoni Mikelarena); komunitatea, interkooperazioa eta saretzea (Gorka Julio); talde kudeaketarako gakoak (June Arechalde); eta proiektuen finantziarioa, adierazle sistema eta subjektuaren eraikuntza (Leire Udabe).

Gainera, formakuntza saioen azken egunean, ekonomia sozial eta eraldatzailearen sustapenaren subjektu aktibo izan daitezkeen zenbait herritar eta ekintzailek erakutsitako konpromisoaren ondoren, subjektuaren eraikuntzako hiru lan saio egitea erabaki zuen udalak, OlatuKoopeko kideek hala proposatuta. Saio horiek egin eta gero, parte hartu duten herritarrek beren kasa subjektuaren eraikuntza garatzeko beharrezkoa den prozesuarekin jarraitzea erabaki dute.





Entre marzo y junio, un grupo compuesto por doce personas ha recibido un curso intensivo de formación de cinco sesiones, en las que han abordado las siguientes cuestiones: economía social transformadora, cooperativismo y soberanía del trabajo (Beñat Irasuegi); desarrollo local transformador para la creación de territorios (localidades) habitables (Andoni Mikelarena); comunidad, intercooperación y formación de redes (Gorka Julio); claves para la gestión colectiva (June Arechalde); y financiación de proyectos, sistema de indicadores y construcción del sujeto (Leire Udabe).

Además, el último día de las sesiones formativas, tras el compromiso mostrado por varios/as participantes y emprendedores/as que pueden ser sujetos activos en la promoción de la economía social y transformadora en nuestra localidad, el Ayuntamiento de Zumaia decidió, a propuesta de los miembros de OlatuKoop, realizar tres sesiones de trabajo para abordar la construcción del sujeto, tras las cuales los/las participantes han decidido continuar con el proceso necesario para desarrollar la construcción del sujeto de forma autónoma.

## Bidelaguntzak

Formakuntza zikloa amaitu ondoren, bidelaguntzak hasi dira. Horien helburua da formakuntza saioetan parte hartu duten ekintzaileei beren proiektua garatzeko laguntza pertsonalizatua ematea. Zehazki, bi proiekturi eman zaie bidelaguntza. Bestalde, Zumaia etxebizitza taldekoei bi orduko saio monografiko bat eskaini zaie, erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatibei buruzkoa.

Tras el ciclo formativo, se dio comienzo a las tutorías personalizadas, con el objetivo de ofrecer un acompañamiento personalizado para el desarrollo de su proyecto a las personas emprendedoras que han participado en las sesiones formativas. En concreto, se ha dado asistencia a dos proyectos. Por otro lado, al grupo de vivienda de Zumaia se le ha ofrecido una sesión monográfica de dos



horas en torno a las cooperativas de vivienda de cesión de uso.

## Elkarlangunea

Legealdi hasieran, coworking edo elkarlan zentro bat sortzeko asmoa agertu zuen udal gobernuak. Iñaki Ostolaza alkateak azaldu duenez, “zenbait eredu aztertu ondoren, ekonomia sozial eraldatzaileak ardatzuko duen” elkarlanerako espazio bat sortzea erabaki dute. OlatuKoop sarearen laguntza eta eredia izan dute horretarako.

Prozesuaren baitan proiektu bat martxan jartzen dutenek bertan lan egin ahal izango dute, eta, gainera, sortu berri den taldearen topagunea izango da espazio berria. Horretarako, hiru gunek antolatuko dituzte: geletako bat lan egiteko egokituko dute; sarrerako gunek ere izango dute, *office* moduan erabiltzeko; eta hirugarren gunek bat erabilera anitzekoa izango da, bilerak eta formakuntza saioak egiteko, besteak beste. Aurrerago, bestelako proiektuak ere bertan lanean aritzeko aukerak aztertuko dituzte, espazioak ahalbidetzen duen neurrian.

A principios de la legislatura el Gobierno municipal anunció su intención de crear un centro de colaboración o coworking. Según el alcalde, Iñaki Ostolaza, tras analizar diferentes modelos

han decidido crear un espacio de colaboración centrado en la economía social transformadora, para lo que han contado con el apoyo y modelo de la red OlatuKoop.

Las personas emprendedoras que pongan en marcha un proyecto en el marco del proceso podrán trabajar en él y, además, será el punto de encuentro de los grupos que se creen en torno a la economía social y transformadora. Para ello, se han diseñado tres espacios: una zona de trabajo, otra de acceso que servirá también como *office*, y una tercera zona multiusos, adecuada para reuniones y sesiones formativas, entre otras funciones. También se estudiará la posibilidad de que otras personas o proyectos puedan trabajar en ese espacio. •

# zumaianbai.eus, herriko negozioen erakusleiho birtuala

Zumaiako denda, taberna eta zerbitzu enpresa txikien informazioa biltzen du webguneak. Herritarrek, jarduera horiei buruzko informazioa ikusteaz gain, online erosketak egiteko atal bat dute eskura. Orain, gainera, sare sozialetan ere lortu daiteke informazio guztia.

Dendarlean Gipuzkoako Merkataritza eta Ostalarien Elkartearekin lankidetzan sortu dute Zumaiako Udalak eta Gertu elkarteak zumaianbai.eus webgunea, herriko jarduera ekonomikoak indartu eta laguntzeko asmoz.


Azken urtean, 250 saltoki ingururen informazioa bildu dute webgunean, eta zuzenean eros daitezkeen 2.000 produktu baino gehiago daude ber-

tan jasota. Gainera, saltokiei buruzko informazioa kontsultatzeko ez ezik, WhatsApp bidez eskaerak egiteko aukera ere ematen du plataformak.

Beraz, webgune honetan herriko denda, taberna eta zerbitzu enpresa txikien inguruko informazioa dago bilduta: enpresen gida, argazkiak, produktuak, saltokiarekin harremanetan jartzeko moduak, eta online

erosteko aukera biltzen ditu, besteak beste.

Alex Oliden tokiko garapenerako zinegotziaren esanetan, lehendik ere bazegoen herriko merkatariekin lankidetzarako ohitura eta tradizioa, baina pandemia garaia indartu egin zuen hori. Pandemia egoeran hartutako neurriei eta ErrotaHerria kanpainari jarraipena eman beharra zegoela



uste zuten bi aldeek, eta horregatik sortu zuten online plataforma. Azken urtean, webgunean informazio ugari bildu dute, eta herriko merkatariek formakuntza jasotzeko aukera izan dute gainera. Orain, salto honekin, erakusleho birtuala kanpora begira indartu nahi dutela nabarmendu du Olidenek.

El Ayuntamiento de Zumaia y Gertu, en colaboración con la Asociación de Comerciantes y Hosteleros de Gipuzkoa Dendardean, han creado la web [zumaianbai.eus](http://zumaianbai.eus), con el objetivo de apoyar y potenciar las actividades económicas locales.

En el último año han recopilado información de cerca de 250 comercios en la web, donde se recogen más de 2.000 productos que pueden adquirirse directamente online. Además, la plataforma ofrece la posibilidad no solo de consultar información de los comercios sino también de realizar pedidos por WhatsApp.

En definitiva, la web recoge información sobre los comercios, bares y pequeñas empresas de servicios de la localidad: guía de empresas, fotografías, productos, la información necesaria para contactar con el comercio, o la posibilidad de comprar online, entre otros.

Según Alex Oliden, concejal de desarrollo local, "la época de la pandemia refor-

zó el hábito y tradición de colaboración que ya existía con los comerciantes de la localidad". Ambas partes coincidieron en la necesidad de dar continuidad a las medidas adoptadas en situación de pandemia y a la campaña ErrotaHerria, por lo que crearon la plataforma online. En el último año han recopilado gran cantidad de información en la web, y los comerciantes de la localidad han tenido además la oportunidad de formarse. Ahora, con este salto, esperan "reforzar el escaparate virtual que supone la web de cara al exterior", según ha destacado Oliden.



## Sare sozialetan ere bai

Orain, plataformaren erabiltzaile kopurua handitzeko asmoz, komunikazio kanpaina bati ekin diote. Instagram eta Facebook sare sozialetan profilak sortu dituzte, eta, kontu horiek jarraituta, herriko saltokien produktuak, merkataritzarekin lotutako albisteak, kanpainak eta intereseko beste hainbat kontu aurkitu ahal izango dituzte zumaia-rrak. Gainera, sare sozial horien bidez zozketak egingo dituzte. Horrenbestez, sare sozialak dituzten zumaia-rrak [zumaianbai.eus](http://zumaianbai.eus) webgunea erabiltzera eta sareetako kontuak jarraitzera animatu nahi dituzte.

Ahora, con el objetivo de incrementar el número de usuarios/as de la plataforma, han iniciado una campaña de comunicación. A través de las redes sociales Instagram y Facebook, los y las zumaiarras podrán encontrar productos del comercio local, noticias relacionadas con el comercio, campañas, etc. Además, se realizarán sorteos a través de estas redes sociales. Por lo tanto, animan a los y las zumaiarras con redes sociales a utilizar la web [zumaianbai.eus](http://zumaianbai.eus) y seguir sus cuentas en las redes.



## Informazioa eguneratzea

Webgunean zure negozio edo saltokiaren informazioa eguneratu edo gehitu nahi baduzu:

- Informazioa eguneratu nahi baduzu, idatzi [info@zumaianbai.eus](mailto:info@zumaianbai.eus) helbidera.
- Zure saltokiaren informazioa lehen aldiz sartu nahi baduzu, deitu **638 00 45 76** telefono zenbakira.
- Bi bide horiez gain, herriko negozioen arduradunek ohiko bideak ere erabil ditzakete harremanetan jartzeko.

Si quieres actualizar o añadir información de tu negocio o comercio:

- Si quieres actualizar la información, envía un correo a [info@zumaianbai.eus](mailto:info@zumaianbai.eus).
- Si quieres crear una ficha con información de tu comercio por primera vez, llama al número **638 00 45 76**
- Además de esas dos vías, los y las responsables de los negocios de la localidad pueden utilizar los canales habituales para contactar. •



# Zumaia euskaraz bizitzeko da

Zumaiako Udalaren helburua euskararen erabilera eta presentzia normalizatzea da, jarduteko modu ohiko eta naturala bihurtu arte. Horretarako, herriko elkarte eta eragileekin lankidetzan, aktibazioa landu eta zerbitzuak eskaintzen ditu, herriko esparru guztietan euskararen normalizazioa errazteko.



# Euskaraldia, hitzez ekiteko



Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahoko\* hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial masiboa da, gizarteko gune guztietara zabaldua eta denborari dagokionez mugatua. Beste era batera esanda, Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta euskararen erabilera handitzea da. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da.

2018an egin zen lehen aldiz ariketa: *Euskaraldia: 11 egun euskaraz*. Orduan norbanakoengan jarri zen fokua, eta milaka izan ziren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin ahobizi eta belarriprest moduan ariketan parte hartu zutenak. Bigarren ariketa 2020an izan zen, eta, horretan, entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zitzaizen, beren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen has zitezten, eta entitateko kideen parte hartzea sustatu eta babestu zezaten. Hala, ariguneak sortu ziren.

*Euskaraldia es un ejercicio social masivo de cambio de hábitos lingüísticos orales\* entre hablantes que entienden euskera, extendido a todos los espacios de la sociedad y de temporalidad limitada. Dicho de otra manera, el objetivo principal de Euskaraldia es incrementar el uso del euskera a través del cambio de hábitos lingüísticos de la ciudadanía. Se basa en la activación de las personas adultas, y el requisito mínimo para participar es entender el euskera.*



## Euskaraldia Zumaian

Oraingo edizioa 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da. Zumaiaiko batzorde eragilea osatu da dagoeneko, eta lehen ekintzak egin dituzte. Mural bat margotu zuten Ardantzabideko Intxaurtxoetako plazan, eta, udan zehar, azken Euskaraldian izandako lorpenak ezagutaraziko dituzte.

*La edición actual se celebrará del 18 de noviembre al 2 de diciembre de 2022. La comisión de Zumaia ya se ha constituido y ya se han llevado a cabo las primeras acciones. El mes de junio tuvo lugar el acto de presentación del mural pintado en la plaza de Intxaurtxoeta en Ardantzabide, y durante el verano se instalarán en los edificios municipales tótems para dar a conocer y poner en valor los cambios de hábitos logrados en el último Euskaraldia.*



# Ingurune digitalean ere euskaraz



PuntuEus Fundazioak eta Zumaiako Udalak ingurune digitalean euskararen presentzia areagotzeko hitzarmena sinatu dute. Helburua, esan bezala, herriko ingurune digitalean euskararen presentzia handitzea da, eta, horretarako, gaur egungo egoera aztertuko da lehenbizi, eta euskararen erabilera handitzeko ekintzak planteatuko dira gero, egoera aztertu osteko emaitzetan oinarrituta.

Josu Waliño PuntuEus Fundazioko zuzendariak honela azaldu du: "PuntuEus-en helburua eraldaketa digitalean euskaratik eragitea da. Horretarako, hainbat eremutan eragiten dugu: norbanakoen erabilera begira kontzientziazioa sustatuz, batetik, eta, bestetik, erakundeen digitalizazioan euskarari tokia egiteko lagunduz, .EUS domeinuaren bidez".

Lehenik eta behin, udalak erraztasunak emango ditu: .EUS domeinua urtebetez ordainduko die herriko 100 entitateri, eta webgunea orain egiten dutenek, gainera, zerbitzaria ere doan izan dezakete lehenbiziko

urtean. Interesa dutenek Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin jarri behar dute harremanetan, eta bi bide dituzte horretarako: 943 86 50 25 (616 luz.) telefono zenbakira deitzea edota [euskaratxanpan@zumaia.eus](mailto:euskaratxanpan@zumaia.eus) helbidera idaztea.

## **Udalak .EUS domeinua urtebetez ordainduko die herriko 100 entitateri**

Maddi Aldalur euskara zinegotziaren ustez, ekimen honek Euskaraldiaren helburuak lantzeko ere balioko du: "Hizkuntza ohiturak aldatzea bultzatu nahi dugu, eta ez ahozko erabileran bakarrik; ingurune digitalean ere sor daitezke ariguneak, eta sustatu behar dugu mundu digital horretan ere ahobizi eta belarriprest jokatzea".

Gaur egun, Zumaian 431 domeinu daude erregistratuta guztira. Horietatik 177 dira webgune aktiboak, eta aktiboen artean 42k dute .EUS domei-

nua: %24k. Hizkuntzaren erabilera aztertuz gero, berriz, euskarak webgune horien %30ean du presentzia. Dinamika honen bidez, gaur egungo egoera aldatu nahi da, ingurune digitalean ere euskararen erabilera kaleko erabileraren parekoa izan dadin.

*La Fundación PuntuEus y el Ayuntamiento de Zumaia han firmado un convenio para incrementar la presencia del euskera en el entorno digital. Para ello, se analizará la situación actual y, una vez conocida ésta, se plantearán acciones para aumentar el uso del euskera. Los detalles han sido dados a conocer por representantes del Ayuntamiento de Zumaia, la Fundación PuntuEus y asociaciones y comerciantes de la localidad.*

*Como primera medida, el Ayuntamiento dará facilidades: pagará el dominio .EUS durante un año a 100 entidades de la localidad, y quienes hagan la web ahora podrán tener el servidor gratis durante el primer año. Las personas interesadas deberán ponerse en contacto con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Zumaia, escribiendo al e-mail [euskaratxanpan@zumaia.eus](mailto:euskaratxanpan@zumaia.eus) o llamando al teléfono 943 86 50 25 (ext. 616).*

*En la actualidad, en Zumaia hay registrados un total de 431 dominios, de los cuales solo 177 son sitios web activos. De ellos, 42 tienen el dominio .EUS, el 24%. En cuanto al uso lingüístico, solo en el 30% de estos sitios web tiene alguna presencia el euskera. Con esta dinámica, por tanto, se busca cambiar la situación actual, para que el uso del euskera en el entorno digital sea equiparable al de la calle.*

# Badauzkagu eredu batzuk



**Lore Garcarena**  
Gertu merkatari elkarte  
[zumaigertuelkarte.eus](http://zumaigertuelkarte.eus)

“Herriko merkatarien alde lanean ari den elkarte bat gara. Zumaiarrengandik ‘gertu’ egotea da gure helburua, eta .EUS domeinuak hurbiltasun hori ematen digu. Zumaia Udalaren eta PuntuEus Fundazioaren bidelagun izango gara, herriko merkatariari ekimen honen berri emateko”.

“Somos una asociación que trabaja a favor de los comerciantes del pueblo. Nuestro objetivo es estar ‘cerca’ de Zumaia y el dominio .EUS nos da esa cercanía. Seremos compañeros de viaje del Ayuntamiento de Zumaia y de la fundación PuntuEus para dar a conocer esta iniciativa a los comerciantes de la localidad”.



**Eneritz Mancisidor**  
Sura osasan zentroa  
[sura.eus](http://sura.eus)

“Gure kasuan erabaki kontziente bat izan zen .EUS domeinua aukeratzea. Identitateari lotutako erabakia izan zen, baita euskalgintzari ekarpena egiteko modua ere”.

“En nuestro caso la elección del dominio .EUS fue una decisión consciente. Fue una decisión vinculada a la identidad y una manera de hacer nuestra aportación al mundo del euskera”.



**Iraitz Mugica**  
Pulpo Eskubaloi Kluba  
[pulpo.eus](http://pulpo.eus)

“Kirol klub txiki bat gara, herrigintzan ere ekarpena egin nahi duena. Euskararen aldeko askotariko ekimenean parte hartzen dugu (Korrikan, Euskaraldian...), eta webgunean ere gure eguneroko hizkuntza, euskara, erabiltzea erabaki logiko bat izan da”.

“Somos un pequeño club deportivo que también quiere hacer su contribución en la construcción de nuestro pueblo. Participamos en iniciativas muy diversas a favor del euskera (Korrika, Euskaraldia...) y ha sido una decisión lógica utilizar nuestra lengua cotidiana, el euskera, también en nuestra web”.

**Gaur egun Zumaian erregistratuta dauden webguneen % 24 dira .EUS**

**Ehuneko hori handitzea da helburua.**

Jarri harremanetan Euskara Zerbitzuarekin

euskaratxanpan@zumaia.eus  
943865025 (616 luz.)

Zure .EUS webgunea euskaraz eta doan

Zureko enpresa, erakundea, taldea edo albarteraren erabilera erabiltzeko erabil daiteke .EUS domeinua. Erabiltzeko erabaki kontziente bat izan behar du. Erabaki kontziente bat izan behar du. Erabaki kontziente bat izan behar du.

**ZURE ESPRESIO DIGITALA**



# Larrainarekin hitzarmena, euskara sustatzen jarraitzeko



Larraina elkartearen helburu nagusia herrian euskararen erabilera sustatzea da, eta hainbat lan ildo ditu zehaztuta: euskararekiko sentsibilizazioa handitzea, euskal kultura hedatzea, euskararen erabilera areagotzea, euskararen lurralde guztietako euskaldunen arteko harremanak sustatzea, hizkuntza eskubideak aldarrikatzea eta defendatzeko guneak eskaintzea, euskararen egoeraren inguruko ikerketak egitea, eta hausnarketarako eta eztabaidarako guneak sustatzea.

Zumaiako Udaleko Euskara Zerbitzuak aspalditik du harreman zuzena herriko euskaltzaleekin, eta Larrainarekin ere eskuz esku aritu da lanean, sortu zenetik. Orain, elkarte moduan eratuta, Zumaiako Udalak eta Larraina euskara elkarteak harremana for-

malizatu dute, lankidetzaz hitzarmen baten bidez. Zumaiako Udalak euskara sustatzeko konpromisoa eta borondatea agertu ditu, eta aurrerantzean ere herriko elkarte eta kolektiboekin aritzearen garrantzia nabarmendu nahi du, horien lana eta konpromisoa eskertzeaz batera.

*El principal objetivo de la asociación Larraina es fomentar el uso del euskera en la localidad y tiene definidas varias líneas de trabajo: aumentar la sensibilización hacia el euskera, difundir la cultura vasca, incrementar el uso del euskera, fomentar las relaciones entre los euskaldunes de los diferentes territorios del euskera, reivindicar los derechos lingüísticos y ofrecer espacios para su defensa, realizar estudios sobre la situa-*

*ción del euskera, y promover espacios de reflexión y debate.*

*El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Zumaia mantiene desde hace tiempo una relación directa con los euskaltzales de la localidad, y desde la creación de Larraina ambas partes han trabajado codo con codo. Ahora, constituidos en asociación, el Ayuntamiento de Zumaia y la asociación de euskera Larraina han formalizado su relación mediante un convenio de colaboración. El Ayuntamiento ha mostrado su compromiso y voluntad de fomentar el euskera, y quiere destacar la importancia de seguir trabajando con las asociaciones y colectivos de la localidad, así como agradecer su trabajo y compromiso.*


# Zaintzaileentzat euskara ikastaroa abian

Eulen enpresarekin eta Malen Etxea-rekin lankidetzan, adinekoak zaintzen aritzen diren langileentzat euskara ikastaroa antolatu du udalak. Helburu nagusia oinarrizko ulermena lantzea eta esaldi erabilienak ikastea da, zaintzen dituzten pertsonekin hurreman gertukoagoa izan ahal izateko. Hamabi emakumek eman dute izena zaintzaileei zuzendutako euskara ikastaro honetan. Banaiz Bagara elkarteak Pako Aristi aritu da irakasle lanetan, eta ekainean hiruna orduko 4 saio egin dituzte. Ondo bidean, iraillean beste saio batzuk egingo dituzte, oinarrizko ikastaroa osatzeko.

Euskaraldiaren testuingurua indartzea ere bada ikastaro honen beste helburuetako bat.

*El Ayuntamiento de Zumaia, en colaboración con la empresa Eulen y Malen Etxea, ha organizado un curso de euskera dirigido a personas que trabajan en el cuidado de personas mayores. El principal objetivo del curso es trabajar la comprensión básica y aprender las frases más utilizadas, para conseguir una relación más cercana con las personas a las que cuidan.*

*Se han inscrito doce mujeres, que en el mes de junio han recibido 4 clases de tres horas, con Pako Aristi de la asociación Banaiz Bagara como profesor. Si todo va bien, en septiembre se organizarán otras clases para completar el curso básico. •*



## BERTATIK BERTARA

Gure herria,  
gure hizkuntza,  
gure arnasa

El nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.  
Gent de mar, de rius i de muntanyes.  
Gent que parla de vida.  
Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.  
Os nosos pobos, a nosa lingua, a nosa xente.





# Geuretik sortuak

Euskal Herriaren kontakizun sentikorra arteak eta kulturak baino ezin dute egin. Euskal arteak lengoia asko izan ditzake, baina hizkuntza bakarra du: euskara. Eta azken urteotan, globalizazioarengatik, besteak beste, euskaraz bestelako hizkuntzetan egindako kultura nagusitzen ari da gure gizartean. Egoera horri erantzuteko asmoz sortu zuen Udalbiltzak Geuretik Sortuak proiektua, euskara hutsean egindako artearen eta kulturaren sorkuntza, ekoizpena eta hedapena sustatzeko zirkuitu nazionala.

Udalbiltzak bultzatutako proiektu horren baitan, bost antzezlan, eleberrri laburren bilduma bat eta ikus-entzunezko pieza bat sortu dituzte Euskal Herri osoko dozenaka sortzailek. Zumaian guztiak ikusi ahal izan dira.

*El relato sensible de Euskal Herria sólo lo pueden hacer el arte y la cultura. El arte vasco puede tener muchos lenguajes, pero sólo tiene un idioma: el euskera. Y en los últimos años, debido entre otras razones a la globalización, la cultura en otras lenguas distintas al euskera está ganando terreno en nuestra sociedad. Para dar respuesta a esta situación, Udalbiltza creó el proyecto Geuretik Sortuak, un circuito nacional para fomentar la creación, producción y difusión del arte y la cultura realizada íntegramente en euskera.*

*En el marco de ese proyecto promovido por Udalbiltza, decenas de creadores de toda Euskal Herria han creado cinco obras de teatro, una colección de novelas cortas y una pieza audiovisual. Todos ellos se han podido ver en Zumaia. El escritor Fito Rodríguez ha creado una novela situada en Zumaia, y actores y actrices zumaïarras han participado en la creación de varios proyectos.*





GEURETIK  
SORTUAK



UDALBILTZA



---

## bost antzezlan

---

## eleberri laburren bilduma bat

---

## ikus-entzunezko pieza bat

---

### *Ostantza,* Zumaian kokatutako eleberri laburra

Zumaiako Udalak ere parte hartu du Geuretik Sortuak ekimenean, eta 2021eko ekainean eta irailean zehar Fito Rodriguez idazleak Zumaian egonaldia egin zuen. Gure herrian kokatu duen eleberria itzulerari buruzko gogoeta bat da. Sorkuntza prozesua amaituta, beste hainbat idazleren eleberri laburrekin batera argitaratu da, *Hamazazpigarrenean*, *aidanez* izeneko liburuan.

“Ostantza” eleberri laburraren irakurketa dramatizatua egin zuen martxoan Rodriguezek, Olatz Beobideren zuzendaritzapean eta hiru aktore zumaiarren ondoan: Inazio eta Lizar Tolosa, eta Esti Curiel.

### Zumaiarrak ere sortzaile

Zumaian uzta oparoa utzi du Geuretik Sortuak proiektuak, baina zumaiarrek ere asko eman diote proiektuari. Maite Aizpuruak Atarrabian eta Uhartan egin zuen egonaldia, eta *Bidaide* antzezlanaren sortu, Metrokoadroka Sormen Laborategia kolektiboaren baitan. Zerk mantentzen du herri batean kultura bizirik? Galdera horri erantzuten saiatu dira antzezlanean.

Bestalde, Telmo Irureta Tanttaka Teatroa konpainiarekin aritu zen *Sexberdinak* obra sortzen, Arrigorriagan. Mireia Gabilondoren zuzendaritzapean, Aitziber Garmendiarekin batera hartu du oholta. Zumaiako ikusleek oso esperientzia berezia bizi ahal izan zuten emanaldian, gurpildun aulkietan eserita ikusi baitzuten antzezlanaren. Sortzaileen esanetan, elbarritasunaren inguruan zerbait intimoa egitea izan da helburua. Ez dute stripteaserik egin, baina antzezlanean biluztu giten dira.

Azkenik, Sambou Diaby eta Kandido Uranga aktoreak protagonista eta kide izan dira *Bost teilatu* lan kolektiboaren baitan sortutako “Muga” film laburrean. Kamaru afrikar gazteak (Sambou Diaby) Espainiako estatutik Frantziarako muga zeharkatu nahi du eta, bien bitartean, mugatik gertuko herri batean kukutzen da, baserritar baten laguntzaz (Kandido Uranga). •



# Egutera, geroz eta gertuago

Egutera energia kooperatibako bazkideek Zumaian bertan sortutako energiarekin aseko dituzte beren behar energetiko guztiak. Instalazioa 2023ko apirilean hasiko da martxan, baina bazkide egiteko epea 2022ko irailean zabalduko da.

Energia burujabetzaren bidean pauso garrantzitsua emango du Zumaia ikasleek eta Ekioiak bultzatuta, Egutera kooperatiba sortu da, eguzki panelen bidez energia Zumaian bertan sortu eta 600 etxebizitza edo saltokiren energia kontsumo guztia asetzeko. Aurretiko izen emate ugari jaso dituzte, eta dagoeneko zenbait bazkide laguntzaile elkartu dira kooperatibara: Gertu merkatariek elkarrekin, Zumaia Herri Eskola eta Zumaia Ikastetxea.

Eguteraren helburua da zumaiarrei herrian bertan beren energia sortzeko eta kontsumitzeko aukera ematea. Izan ere, zumaiarren artean gero eta zabalduago dago energia eredu aldatzeko beharrezko kontzientzia; baina hori ekintzetara eramateko, birtartekoak behar dira, eta horretarako balioko du proiektuak.

**Eguteraren helburua da zumaiarrei herrian bertan beren energia sortzeko eta kontsumitzeko aukera ematea.**

Eguzki panel horietatik sortzen den energia beren ohiko energia kontsumora bideratzeko, Eguterako bazkide egin beharko dute zumaiarrek. Beren kontsumoaren %100a eguzki parkean sortzen den energiarekin aseko dute. Izena aurretik emateko epea zabalik

dago dagoeneko, eta orain izena ematen dutenek lehentasuna izango dute gero bazkide egiteko.

En los próximos meses Zumaia dará un paso importante en el camino hacia la soberanía energética. Impulsado por el Ayuntamiento y Ekiola, se ha creado la cooperativa Egutera para, a través de placas solares, generar energía en Zumaia y satisfacer todo el consumo energético de 600 viviendas o comercios. Han recibido numerosas preinscripciones, y ya son varios los socios colaboradores que se han unido a la cooperativa: la asociación Gertu, Zumaia Herri Eskola y la escuela Zumaiana.

El objetivo de Egutera es ofrecer a los y las zumaiarres la posibilidad de generar y consumir su propia energía en el propio pueblo. La ciudadanía cada vez está más concienciada de la necesidad de cambiar el modelo energético, pero para llevarlo a cabo se necesitan medios, y para eso servirá el proyecto.

Para que la energía generada mediante los paneles solares se destine a su consumo energético habitual, los y las zumaiarres deberán hacerse socios/as de Egutera, lo que les permitirá cubrir el 100% de su consumo con la energía generada en la planta solar. La preinscripción ya está abierta, y las personas que se inscriban ahora tendrán preferencia para hacerse socios/as.

PERTSONA / ETXEBIZITZA	KONTSUMOA	INBERTSIOA (FINANTZAKETARIK GABE)	FINANTZAKETAREKIN (% 29*)	FINANTZAKETAREKIN ZERGA-KENKARIAK (% 15)
4 pertsona	2900 kWh	2.882 €	2.128 €	1.809 €
3 pertsona	2400 kWh	2.394 €	1.767 €	1.502 €
2 pertsona	2000 kWh	2.003 €	1.479 €	1.257 €
Pertsona 1	1500 kWh	1.515 €	1.118 €	950 €

\* Kooperatibarentzako finantzaketaren banketxe batekin.



Hodei Arzak eta Elene Santamaria Ekiolako teknikariek eman zituzten azalpenak aurkezpen ekitaldian.

# Proiektuaren epeak

2022 EKAINA

Energia kooperatibaren **aurkezpena.**



2022 UZTAILA-ABUZTUA

**Aurretiko izen ematea.**  
Bazkide izateko interesa dutenek aurretik izena emateko aukera.



2022 IRAILA

**Bazkide egiteko fasea.**  
Datu tekniko-ekonomikoak dituzten txosten pertsonalizatuak.



## Eman izena inolako konpromisorik gabe

Proiektuan interesa duten herritarrek nahiz herriko denda, ostalaritza eta zerbitzu jardueretako arduradunek aurretik izena eman dezakete dagoeneko. Interesa agertzen duten herritar horiei informazio zehatza emango zaie irailean, bazkide egin nahi duten edo ez erabaki dezaten. Bakoitzaren kontsumoa aztertuta, bazkide egiteko zer kuota ordaindu beharko lukeen kalkulatu zaio; horrekin batera, energia kontsumoaren prezio zehatza ezagutuko da irailean.

Aurretik izena eman nahi dutenek honako helbide honetara jo behar dute: [labur.eus/egutera](http://labur.eus/egutera). Galdetegi bat betetzea nahikoa izango dute, eta ez zaie bestelako konpromisorik eskatuko. Orain izena ematen dutenek aurrerago erabaki ahal izango dute bazkide egin edo ez, baina lehentasuna izango dute gero bazkide egiteko.

Tanto los y las zumaiarras como las personas responsables de actividades comerciales, hosteleras y de servicios de la localidad que estén interesadas en el proyecto ya pueden realizar la preinscripción. A todas ellas se les dará infor-

mación detallada en septiembre, para que puedan decidir si desean hacerse socias o no. Una vez analizado su consumo, se les calculará la cuota a pagar para hacerse socios/as; junto a ello, en septiembre se conocerá el precio concreto del consumo energético.

Las personas que quieran hacer la preinscripción pueden hacerlo en la dirección [labur.eus/egutera](http://labur.eus/egutera). Bastará con rellenar un cuestionario y no se les exigirá ningún otro tipo de compromiso, de manera que quienes se inscriban ahora podrán decidir más adelante si desean hacerse socias o no, aunque tendrán prioridad para hacerse socias después.

**Egotetik egitera goaz.**

Zumaian bertan **eguzki energia** sortuko dugu.

Eman izena orain, eta bazkide egiteko lehentasuna izango duzu



**labur.eus/egutera**  
Eman izena inolako konpromisorik gabe





## Lehenengo proiektua. Instalazio fotovoltaikoa

2.304 eguzki panelez osatutako parkea Oikian kokatuko da, eta 2023ko apirilean hasiko da martxan. Parke fotovoltaikoa eraikitzen 2022ko azaroan hasiko direla aurreikusten dute sustatzaileek. Zumaiaiko Udalak 60.000 euroko dirulaguntza eman dio Ekiolari; hain justu, lursaila 25 urtean alokatzearen kostua.

*La planta de 2.304 placas solares se ubicará en Oikia y comenzará a funcionar en abril de 2023. Los promotores prevén que la construcción de la planta fotovoltaica comience en noviembre de 2022. El Ayuntamiento de Zumaia ha concedido a Ekiola una subvención de 60.000 euros, equivalente al alquiler de 25 años de la parcela. •*

**Informazio gehiago:**  
[labur.eus/eguterainfo](http://labur.eus/eguterainfo)

Azalpen bideo  
laburra

Aurkezpen  
ekitaldia osorik

Oinarrizko  
informazioa



# 500.000 euro, herritarren esku

2023 eta 2024ko udal aurrekontuetan zumaiarrek zuzenean aukeratutako proiektuak txertatuko ditu Zumaia Udalak. Proposamenak jaso eta lehen aukeraketa egin ondoren, irailean proiektuak bozkatzeko momentua iritsiko da.

Udal aurrekontuek udalak urte bakoitzean zenbat diru duen eta zertarako erabiliko duen jasotzen dute. Zati handi bat jada martxan dauden zerbitzu eta ekimenetara bideratzen da: kultur etxea, kiroldegia, kaleak mantentzeko lanak, langileen soldatak, dirulaguntzak eta abar. Baina beste zati bat urtean-urtean erabakitzen diren proiektu eta beharretarako gordetzen da.

Hain zuzen ere, urtez urte erabakitzen diren proiektuetarako diru kopuru horren zati bat da udalak datozen bi urteetarako zumaiarren esku jarri duena: 500.000 euro, zehazki. Diru kopuru hori bi urtetan banatuko dute, eta aukeratzen den proiektu bakoitzak ezingo du 125.000 euroko kopurua gainditu.

500.000 euro horiek zertara bideratu erabakitzeko, partaidetzazko aurrekontuen prozesua jarri zen martxan joan den martxoan. Zenbait fase bete eta gero, irailean iritsiko da herritarrek proposatutako proiektu eta ekimenen artean aukeratzeko momentua.

## **Irailean aukeratuko dira proiektuak, boto bidez**

Orduan, 16 urtetik gorako zumaiar guztiak boto bidez hautaketa egiteko aukera izango dute. Eta, horren ondoren, aukeratu diren proiektuak 2023ko eta 2024ko aurrekontuetan txertatuko ditu udalbatzak.

Los presupuestos municipales reflejan de cuánto dinero dispone el Ayuntamiento cada año y a qué se destinará. Buena parte de ese dinero se destina a servicios e iniciativas ya concretadas: casa de cultura, polideportivo, mantenimiento de calles, sueldos de trabajadores, subvenciones, etc. Pero otra parte se reserva para proyectos y necesidades que se deciden cada año.

Es precisamente parte de esta cifra la que el Ayuntamiento de Zumaia ha puesto a disposición de los y las zumaiarros para los próximos dos años: 500.000 euros, concretamente. Esa cantidad se repartirá en dos años, sin que cada proyecto supere los 125.000 euros.

Para decidir a qué destinar esa cantidad, el pasado mes de marzo se puso en marcha el proceso de presupuestos participativos. Tras recorrer varias fases, en septiembre llegará el momento de elegir entre los proyectos e iniciativas propuestas por la ciudadanía, de manera que todos y todas las zumaiarros mayores de 16 años tendrán la oportunidad de mostrar su elección mediante votación. Para finalizar, los proyectos seleccionados se incluirán en los presupuestos de 2023 y 2024.



Proposamenak online, postontzietan utzita edota kaleko standean aurrez aurre egin dituzte herritarrek.





Aurrez aurreko zenbait saio egin dira prozesu osoan zehar.

01

### PROPOSAMENAK JASO

Lehenengo fasean, martxoan, udalak herritarren proposamenak eta ideiak jaso zituen: 281, guztira. Batzuk errepikatuta zeuden, eta beste batzuk baztertu egin behar izan ziren zenbait arrazoiengatik: udal eskumenekoak ez zirelako, aurreikusitako aurrekontua gainditzen zutelako.... Horiek kenduta, 156 proposamen igaro ziren bigarren fasera.

**Recibir propuestas.** En una primera fase, en marzo, el Ayuntamiento recibió las propuestas e ideas de los vecinos, 281 en total. Una vez descartadas las que estaban repetidas y las que no eran válidas (por no ser de competencia municipal, por superar el presupuesto previsto...), un total de 156 propuestas pasaron a la segunda fase.

02

### PROIEKTUAK LEHENESTEA

Bigarren fasean, herritarrek, guztien artean, jasotako proposamenetatik batzuk lehenetsi zituzten, zenbait irizpide kontuan hartuta: 32, zehazki. Orain, jasotako proposamen horiek aztertzen eta balorazioak egiten ari dira udal langileak.

**Priorizar proyectos.** En la segunda fase, la ciudadanía, siguiendo diversos criterios, priorizó las propuestas recibidas, concretamente 32. Ahora, los y las trabajadoras municipales están analizando las propuestas y realizando las valoraciones oportunas.

03

### BOZKETA

Prozesuak irailean jarraituko du: lehenetsitako proiektu horien artean hautaketa egiteko momentua izango da orduan, eta Zumaian errolatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek proiektuak bozkatzeko aukera izango dute.

**Votación.** El proceso continuará en septiembre, momento en el que todas las personas mayores de 16 años empadronadas en Zumaia podrán participar en la elección de las propuestas mediante votación.

04

### PROIEKTUAK AURREKONTUETAN TXERTATU

Azkenik, boto gehien jaso dituzten proiektuak 2023ko eta 2024ko aurrekontuetan txertatu ditu Zumaia Udalak, 250.00 euro urte bakoitzean.


**Incluir los proyectos en los presupuestos.** Finalmente, el Ayuntamiento de Zumaia incluirá los proyectos más votados en los presupuestos de 2023 y 2024, 250.00 euros cada año. •

# ZOZ sarea 500 etxetara iritsi da

KALITATEZKO ZUNTZ OPTIKOA BERTAKO OPERADOREEKIN  
*FIBRA ÓPTICA DE CALIDAD CON OPERADORES LOCALES*

**Zatoz  
guztion  
sarera**

Informazio gehiago:  
**[labur.eus/ZOZ](http://labur.eus/ZOZ)**



fundació  
**guifi·net**

Zumaiako  
Udala



**Z** ZUMAI  
BIZITZEKO  
DA



# Etxebizitza turistikoak arautzeaz

Atari bakoitzean gehienez ere etxebizitza turistiko bakarra egotea eta herri osoko plaza kopurua mugatzea dira proposamenaren zutabe garrantzitsuenak. Gainera, Zumaiaiko erdigunea babesteko neurriak hartuko dituzte. Indarrean dauden lizentziak bere horretan mantenduko dira.

Udal teknikariak, etxebizitza turistiko jabeak eta Etxebizitza Asanbladako kideak elkarrizketatu eta zenbait araudi aztertu ondoren, etxebizitza turistiko gaia arautzeko proposamena osatu du udal gobernuak. Maiatzean aurkeztu zuten jendarean, eta, orain, forma juridikoa eman eta HAPOan zein arau subsidiarioetan txertatzeko lanketan murgildu dira.

Gaur egun, Zumaiaiko udal araudian ez dago etxebizitza turistikoekin lotutako araurik. Beraz, herrian erabilera horretarako jarduerak martxan jarri nahi zirenean, orain arte ez zegoen inolako baldintzarik zehaztuta, Eusko Jaurlaritzaren araudi orokorrak dioen gain. Horregatik, jarduera arautu bitartean, Zumaiaiko Udalak luzamendua edo moratoria ezarri zuen, eta urtebetez ez du etxebizitza turistiko berrietarako baimenik eman. Erabakia 2021eko ekaineko ohiko osoko bilkuran hartu zuen udalbatzak, udal talde politiko guztiek aho batez onartuta. Aldi berean, etxebizitza turistikoak arautzeko proposamena osatzeko lanketa abiatu zuen udal gobernuak, Hiritik At kooperatibaren laguntzarekin.

Tras entrevistar a técnicos municipales, propietarios/as de viviendas turísticas y miembros de la Asamblea de Vivienda y analizar diversas normativas, el Gobierno municipal ha elaborado una propuesta para regular las viviendas turísticas de Zumaia. Una vez presentada públicamente en mayo, están en estos momentos inmersos en darle forma jurídica e incorporarla al PGOU y en las normas subsidiarias.



Actualmente, en la normativa municipal de Zumaia no existe ninguna regulación relacionada con las viviendas turísticas. Por lo tanto, hasta ahora no se definía ninguna condición para la puesta en marcha de actividades con este tipo de usos en la localidad, al margen de la normativa general del Gobierno Vasco. Por ello, el Ayuntamiento de Zumaia decidió establecer una moratoria hasta tener aprobada la regulación sobre dicha actividad, y durante un año no ha concedido nuevas licencias para viviendas turísticas. La decisión fue adoptada por el pleno municipal, en el pleno ordinario de junio de 2021, con el consenso de todos los grupos políticos municipales. Paralelamente, el gobierno municipal inició la elaboración de la propuesta de regulación de las viviendas turísticas, con la colaboración de la cooperativa Hiritik At.

## Azterketaren ondorioak

Egindako elkarrizketetan zenbait ondorio partekatu atera dituzte:

- Etxebizitzaren arazo nagusia ez dira pisu turistikoak, baina horiek arautzea ezinbestekoa da, bai etxe-

bizitza turistiko jabeentzat, baita herritarrentzat ere. Dena den, pisu turistikoak arazoaren eragile nagusia ez izan arren, garbi dago etxebizitza horiek iraupen luzeko alokairura bideratuko balira txikitutako egingo litzatekeela alokairuaren problematika.

- Etxebizitza turistikoek erabilera tertziarioa izan behar dute, jarduera ekonomiko bat diren heinean.
- Zenbait neurri murriztaile zehaztu behar dira.
- Zumaiaiko erdigunea jada beteta dagoen eremutzat hartu daiteke.

En las entrevistas realizadas se ha llegado a una serie de conclusiones compartidas:

- El principal problema de la vivienda no son los pisos turísticos, pero su regulación es imprescindible tanto para propietarios/as de viviendas turísticas como para la ciudadanía. Sin embargo, aunque los pisos turísticos no son el principal causante del problema, no cabe duda de que si se destinaran al alquiler de larga duración se reduciría la problemática del alquiler.
- Las viviendas turísticas deben tener un uso terciario como actividad económica.
- Hay que definir una serie de medidas restrictivas.
- El centro de Zumaia puede identificarse como zona saturada.

# Neurri berriak

**Ondorio horietatik abiatuta, etxebizitza turistikoak arautzeko zenbait neurri zehaztu dira. Hauek dira garrantzitsuenak:**

*A partir de esas conclusiones, se han definido una serie de medidas para la regulación de las viviendas turísticas. Las más importantes son las siguientes:*

01

## 250 PLAZAKO MUGA

Udalerriko hiri lurzoru kontsolidatu osorako, 250 plazako muga ezarriko da erabilera turistikoko etxebizitzaren baitan (gaur egun, EAEko etxebizitza turistikoen erregistroan 44 etxebizitza turistiko ageri dira, guztira 198 plazarekin).

*Se establece un límite de 250 plazas dentro de las viviendas de uso turístico para todo el suelo urbano consolidado del municipio (en el registro de viviendas turísticas de la CAPV actualmente constan 44 viviendas turísticas, con un total de 198 plazas).*

02

## ERDIGUNEA BABESTU

Horietatik, gehienez ere 150 plaza egon ahalko dira erdiguneko eremu osoan erabilera turistikoko etxebizitzetan.

*De ellas, habrá un máximo de 150 plazas en toda la zona céntrica en viviendas de uso turístico.*

03

## ATARI BAKOITZEAN GEHIENEZ ETXEBIZITZA TURISTIKO BAT

Bizitegi eraikin bakoitzean (atari bakoitzean, alegia) etxebizitza turistiko bakarra baimenduko da, eta gehienez 8 plaza izango ditu. Gainera, atari bakoitzean ezingo da %30 baino gehiago hirugarren sektoreko erabilerara bideratu.

*Se permitirá una única vivienda turística en cada edificio residencial (portal), con un máximo de 8 plazas. Además, no se podrá destinar más del 30% de cada portal a uso terciario.*

04

## ETXEBIZITZA TURISTIKOEN ARAUDIA BETE

Etxe horiek etxebizitza turistikoek dagokien araudia bete behar dute (ez bizitegiei dagokien araudia, orain artean bezala).

*Los inmuebles deberán cumplir la normativa correspondiente a las viviendas turísticas (no la normativa residencial, como se hacía hasta ahora).*

05

## GAUR EGUN LIZENTZIA DUTENAK MANTENDU

Araudi berria indarrean sartzen denean behar bezala erregistratuta dauden etxebizitzak erabilera turistikoko etxebizitzatzat onartuko dira eta eskaintzen dituzten plazak kopurua kontuan hartuko da araudi berriaren mugetarako.

*Las viviendas debidamente inscritas en el registro a fecha de la entrada en vigor de la nueva normativa se asimilarán como de uso de viviendas turísticas, computando las plazas ofertadas para esta normativa.*

## Etxebizitza arazoari "modu integralean" erantzuteko lanean

Udal gobernuaren lehenasunetako bat etxebizitzaren arazoari erantzutea da. Badaki etxebizitza turistikoak arazoaren zati bat baino ez direla, eta, horregatik, jardura hori arautzeaz gain, bestelako lan ildo batzuk martxan jartzea beharrezkoa dela uste du.

Horrela, Zumaiako udal gobernuak etxebizitza plan oso bat garatzeko borondatea du. Etxebizitza bulego martxan jartzeko lanean ari da, eta, horretarako, etxebizitza bulegoan arituko den teknikari bat kontratatu zuen iaz. Alokairurako laguntzak ematea eta etxe hutsak mobilizatzeko lanketa abiatzea dira ildo nagusiak. Gainera, etorkizunean etor daitezkeen etxebizitza promozio berrietan etxebizitza behar desberdinak kontuan hartzeko lanean ari da udal gobernuak.

*Una de las prioridades del Gobierno municipal es dar respuesta al problema de vivienda. Es consciente de que las viviendas turísticas son sólo una parte del problema y, por ello, además de regular esta actividad, considera necesario poner en marcha otras líneas de trabajo.*

Así, el Gobierno municipal de Zumaiá tiene la firme voluntad de desarrollar un completo plan de vivienda. En ese sentido, está trabajando en la puesta en marcha de la oficina de vivienda, para lo que contrató el año pasado a un técnico que será el responsable de dicha oficina. Las líneas maestras son la concesión de ayudas al alquiler y activar la labor de movilización de las viviendas vacías. El Gobierno municipal está trabajando también para que en las nuevas promociones de vivienda posibles que puedan venir en el futuro se contemplen las diferentes necesidades de la ciudadanía. •



# IV. Berdintasun Plana osatzen

Bi fasetan banatuko da lanketa, eta plan berria 2023 hasierarako indarrean egotea da helburua. Plana errealista, gertukoa eta eraginkorra izatea da asmoa.



Zumaiako Udalaren IV. Berdintasun Plana diseinatzeko prozesua martxan dago martxotik. Gaur egun indarrean dagoen plana, hirugarrena, amaitzear dago, eta 2023. urtearen hasierarako laugarrena indarrean egotea nahi dute.

Urte hauetan guztietan aldaketa handiak izan direla ikusi dute orain arte egindako azterketan. Aldaketa horiek, besteak beste, Emakumeon\* Etxearen sorrerak eta pandemiak markatu dituzte. Edonola ere, hutsune ugari topatu dituzte, eta hurrengo urteetako erronkak zehazteko lanetan murgilduta dabilta orain. Plan berriak zehaztuko du zer ildori jarraituz planifikatu eta antolatu beharko diren berdintasunaren arloan egin beharreko esku hartzeak datozen urteotan.

*El proceso de diseño del IV Plan de Igualdad está en marcha desde marzo. El plan actualmente en vigor, el tercero, está a punto de agotarse, y se espera que para principios de 2023 esté en vigor el nuevo.*

*En el análisis realizado hasta la fecha, se han observado importantes cambios en todos estos años, marcados, entre otros factores, por la creación de la Casa de las Mujeres\* y por la pandemia. En cualquier caso, han identificado numerosos puntos a mejorar, y en estos momentos se encuentran en pleno proceso de definir los retos a conquistar de ahora en adelante. El nuevo plan será el principal instrumento de planificación y ordenación de la intervención en materia de igualdad en los próximos años.*

## Bi faseko prozesua

Lehenengo fasean, dokumentazioa biltzeaz gain, partaidetza zuzena izan duten eragileen ikuspegia jaso dute. Elhuyar erakundeak lagunduta, berdintasunaren inguruan zeresan handia duten honako eragile eta kide hauek elkarrizketatu ditu udalak: udaleko zenbait sailtako teknikariak, Ludotekako eta Gazteguneko hezitzaileak, LGTBI lanketa egiten ari den Eihera kooperatibako teknikariak, hezkidetzeta programaz arduratzen ari


den Daiteke elkarteko teknikariak, landa eremuko emakumeak, Malen Etxea emakume migratzaileen elkarteko kideak, Emakumeon\* Etxeko partaideak eta mugimendu feministako kideak. Horiek guztiek egindako ekarpenekin diagnostikoaren zirriborroa osatu du udalak, eta, azterketa osatzeko, Zumaiako herritar guztien ekarpenak jasotzeko saio irekia egin zen maiatzean.

Bigarren fasea irailtik abendura bitartean egingo da, eta egindako balorazioetatik eta identifikatutako erronketatik abiatuta, horiei aurre egiteko helburuak eta neurriak landuko dituzte.

*En una primera fase, además de recopilar la documentación, han recogido el testimonio y puntos de vista de los agentes que han tenido una participación directa. Con la colaboración de Elhuyar, el Ayuntamiento ha entrevistado a agentes y miembros de diferentes departamentos del Ayuntamiento y representantes de asociaciones y movimientos locales. En base a las aportaciones realizadas por todos ellos, el Ayuntamiento ha elaborado un borrador de diagnóstico y, para completar el estudio, convocó en mayo una sesión abierta para recoger las aportaciones de la ciudadanía.*


*La segunda fase se desarrollará entre septiembre y diciembre, y a partir de las valoraciones realizadas y de los retos identificados, se trabajarán los objetivos y medidas para afrontarlos.*

# IV. Berdintasun Planaren betetze maila




## Gobernu ona Buen gobierno

- Udalaren konpromisoa herrian ikusarazi (%100)  
*Visibilizar el compromiso del Ayuntamiento en la localidad (100%)*
- Lan eta politika guztietan genero ikuspegia txertatu (%87)  
*Incorporar la perspectiva de género en todos los trabajos y políticas (87%)*
- Berdintasunerako politiken antolaketa hobetu (%71)  
*Mejorar la organización de las políticas de igualdad (71%)*
- Berdintasunerako politikak lantzeko baliabideak indartu (%25)  
*Reforzar los recursos para elaborar políticas de igualdad (25%)*
- Udala erakunde berdinzalea izateko aurrerapausoak eman (%12)  
*Avanzar para que el Ayuntamiento sea una entidad igualitaria (12%)*




## Emakumeen ahalduntzea Empoderamiento de la mujer

- Ahalduntze soziala eta politikoa sustatu (%100)  
*Promover el empoderamiento social y político (100%)*
- Emakumeen partaidetza soziopolitikoa areagotu (%43)  
*Aumentar la participación sociopolítica de las mujeres (43%)*
- Ahalduntze pertsonala eta kolektiboa (%33)  
*Empoderamiento personal y colectivo (33%)*



## Gizarte antolaketa berdinzalea Organización social igualitaria

- Hezkidetzeta eta sexu heziketa landu (%86)  
*Coeducación y educación sexual (86%)*
- Berdintasuna balio sozialtatu aitoritu, eta sensibiltasunaz (83%)  
*Sensibilización y reconocimiento de la igualdad como valor social (83%)*
- Zaintza lanen balioa aitortu, eta erantzunkidetasuna sustatu (%57)  
*Reconocimiento del valor de los cuidados y fomento de la corresponsabilidad (57%)*
- Autonomia sozioekonomikoa bultzatu (%0)  
*Favorecer la autonomía socioeconómica (0%)*



## Indarkeria matxistaren prebentzioa eta erantzuna Prevención y respuesta a la violencia machista

- Udalak jarrera eragileak izan (%100)  
*Actitud impulsora del Ayuntamiento (100%)*
- Sensibilizazioa eta prebentzioa (%71)  
*Sensibilización y prevención (71%)*
- Arreta hobetu (%41)  
*Mejora de la atención (41%)*





### Gobernu ona

Aurrerapausoak eman dira udal jardunean genero ikuspegia txertatzen. Baliabideak indartu eta antolaketa hobetu behar dira.

*Se ha avanzado en la incorporación de la perspectiva de género en la actividad municipal. Hay que reforzar los recursos y mejorar la organización.*



### Emakumeen ahalduntzea

Emakumeon\* Etxea salto kualitatibo eta kuantitatiboa izan da ahalduntzean eta saretean.

*La Casa de las Mujeres\* ha sido un salto cualitativo y cuantitativo en el empoderamiento y en la creación de nuevas redes.*



### Gizarte antolaketa berdinzeala

Zaintza lanen inguruko gogoeta sakon eta orokor baten beharra azaldu da.

*Se ha planteado la necesidad de una reflexión profunda y global sobre cuidados.*



### Indarkeria matxista

Udalak protokoloa dauka, baina jende askok ez daki horren berri. Jarrera irmoa agertzen du, eta festetan, adibidez, kanpainak egin izan dira.

*El Ayuntamiento cuenta con un protocolo, pero mucha gente no lo conoce. Muestra una actitud firme, y en fiestas, por ejemplo, se han venido realizando campañas.*

## Hurrengo erronkak

01

Genero zeharkakotasunaren estrategian sakontzen jarraitzea, eta, horretarako, udal teknikariak trebatzea.

*Continuar profundizando en la estrategia de transversalización de género, mediante la formación de técnicos/as municipales.*

02

Berdintasun Saila indartzeko aukerak aztertzea eta baliabideak jartzea.

*Estudiar las posibilidades y dotar de recursos para el fortalecimiento del Departamento de Igualdad.*

03

Emakumeon\* Etxearen proiektua indartzea eta ezagutaraztea.

*Potenciar y difundir el proyecto de la Casa de las Mujeres\*.*

04

Berdintasun Foroari buruzko gogoeta egitea.

*Reflexionar sobre el Foro para la Igualdad.*

05

Emakume zaurgarrien errealitateak ezagutzea, beren egoera konkretuei erantzuteko irtenbideak aztertzea, baliabideak eskaintzea eta haien arteko sareak sustatzea.

*Conocer las realidades de las mujeres en situación de mayor vulnerabilidad, analizar soluciones para responder a sus circunstancias concretas, ofrecer recursos y promover redes entre ellas.*

06

Hezkidetzaren arloan egiten den lana indartzea eta koordinatzea.

*Reforzar y coordinar el trabajo en materia de coeducación.*

07

Erantzunkidetasunean eta zaintzaren garrantzian sakontzea.

*Profundizar en la corresponsabilidad y en la importancia del cuidado.*

08

Indarkeria matxistaren prebentzioan eta arretan sakontzea, erakundeen arteko koordinazioan lan eginez.

*Profundizar en la prevención y atención de la violencia machista, trabajando en la coordinación interinstitucional.*

09

Udalak berdintasunaren arloan egiten duen lana herritar guztiengana iristeko lanean jarraitzea.

*Seguir trabajando para hacer accesible a toda la ciudadanía la labor en igualdad que realiza el Ayuntamiento. •*

# Mugakideekin hitzarmena

Hitzarmena sinatu dute Zestoa, Zumaia, Deba eta Itziarrek, herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzeko eta estrategia bateratuak martxan jartzeko. Lehentasuneko lau lan ildo zehaztu dituzte: herritarren zerbitzua, arlo sozioekonomikoa, ingurumena, eta kultura eta ondarea.



Alkateek Jadarreko mugarrian eman zuten hitzarmenaren berri.

Zestoa, Zumaia, Deba eta Itziar mugakideak dira, baina ez daude udal elkarte berean. Herri horietako bizilagun askok eta askok lotura estua dute aldameneko herriarekin (ohituragatik, gertutasunagatik...), eta ondare asko nahiz industriaguneak ere hiru udalerrien arteko muga inguruetan daude, besteak beste.

Errealitatea hori izanda, eta orain arteko antolaketa mugak gaitzetzeko asmoz, hitzarmena sinatu dute Zumaia, Zestoako, Debako eta Itziar-ko Auzo Udaleko alkateek. Koordinazio eta antolaketarako gune iraunkorra sortuko dute, herritarrei eman beharreko zerbitzua hobetzeko eta estrategia bateratuak martxan jartzeko.

Hitzarmenean lau lan ildo nagusi zehaztu dituzte: herritarren zerbitzua

(muga inguruetan bizi diren herritarrei eman beharreko zerbitzuen banaketan izaten diren arazoak eta koordinazio gabeziak hobetu nahi dituzte, besteak beste); arlo sozioekonomikoa (industriaguneetako esku hartzeak, bertako turismo eredua eta

## **Antolaketa mugak gaitzetzeko da asmoa, herritarrei zerbitzu hobea emateko.**

merkataritza suspertzeko neurriak...); ingurumena (larrialdi klimatikoari aurre egiteko neurriak, eta lurraldea zaintzea zein baso politika egokia garatzea dira lehentasunak); eta kultura eta ondarea (hiru udalerrien muga inguruetan dagoen ondarea babestu,

ikertu eta ezagutzera emateko proiektuak sustatu nahi dituzte, kultur eta festa jarduerari lotutako koordinazioa hobetu, kirol arloko egitasmo komunak garatu...).

Lau alkateek Jadarreko mugarrian eman zuten hitzarmenaren berri; hain justu, Zumaia, Deba eta Zestoako udalerriek bat egiten duten lekuan. Orain arte erorita egon da mugarría, eta berriro ere bere lekuan jarri ondoren egin dute agerraldia. Hitzarmenaren baitan, inguruko mugarría berreskuratzea eta horiek ezagutzera emateko dinamikak martxan jartzea ere adostu dute.

*Zestoa, Zumaia, Deba e Itziar son localidades limítrofes, pero cada una está en una mancomunidad diferente. Muchos de sus habitantes mantienen una estrecha relación con la localidad vecina (por costumbre, cercanía...), y además de las zonas industriales, entre otros, no son pocos los elementos patrimoniales que se encuentran también en zonas limítrofes entre los tres municipios.*

*Ante esta realidad, y con el objetivo de superar los límites organizativos existentes hasta la fecha, los ayuntamientos correspondientes han firmado un convenio. Crearán un espacio permanente de coordinación y organización para mejorar el servicio a la ciudadanía y poner en marcha estrategias conjuntas.*

*El convenio establece cuatro grandes líneas de trabajo: servicio a la ciudadanía, área socioeconómica, medioambiente, y cultura y patrimonio. •*





## Kanporatuen omenezko oroigarria eraberrituta

1937ko neguan frankistek ehunka zibil deserriratu zituzten, senideren bat Errepublikaren kontrolpeko lurretan zutelako. 252 zumaiaiar, Zubitxikian bildu eta kamioi eta autobusetan banatuta, herritik kanporatu zituzten. Gertaera haren 80. urteurrenean udalak oroigarria jarri zuen Ignacio Zuloaga plazan, kanporatu haien omenez. Orduetik hona kaltetu egin da, eta eraberritu egin dute.

*Reformado el monolito en recuerdo a las zumaiairras expulsadas. En el invierno de 1937, cientos de civiles fueron deserradas por los franquistas, entre ellas 252 zumaiairras. En el 80 aniversario el Ayuntamiento instaló un monolito en homenaje a las personas expulsadas. En este tiempo, el monolito se ha visto afectado, por lo que ha sido reformado.*



## Geoparkeko ebaluazio misioaren bisita

Ekainean zehar, Geoparkeen Munduko Sareko Manfred Kupetz eta Egidio Calabrese ebaluatzaileak inguruotan ibili dira, UNESCOren Munduko Geoparke izendapena berretsi edo ez erabakitzeko. Lau egunez ebaluatzaileak erakundeetako ordezkariekin, teknikariek eta inguruko hainbat eragilerek elkartu dira eta Geoparkeko interes-gune nagusiak bisitatu dituzte.

*Visita de la misión de evaluación del Geoparque. A lo largo del mes de junio, los evaluadores Manfred Kupetz y Egidio Calabrese de la Red Mundial de Geoparques han visitado las zonas que conforman el Geoparque, para decidir si ratifican o no la declaración de Geoparque Mundial de la UNESCO. Durante la visita se han reunido con numerosos representantes.*



## Komentuko obren lizitazioa martxan

Zumaiako udalbatzak aho batez onartu du komentua kultur topagune bihurtzeko obren espedientea eta, ondorioz, lanen lizitazioa. Lanek 5 milioi euro pasatzeko kostua izango dute, eta finantziatzeko dirulaguntzak eskatzeko lanetan murgilduta dago udala. Eraberritzeko lanak urtea amaitu aurretik hastea aurreikusten dute.

*En marcha la licitación de las obras del convento. El pleno municipal ha aprobado por unanimidad el expediente de rehabilitación del Convento de San José y la consiguiente licitación de las obras. Las obras de reforma del edificio costarán más de 5 millones de euros y el Ayuntamiento está inmerso en la solicitud de subvenciones para su financiación. Se prevé que las obras de reforma comiencen antes de final de año.*



## Udal ordainketak Bizum bidez

Zumaiaiko Udalak Bizum bidezko ordainketa sistema jarri du martxan, herritarrei ordainketak egiteko erraztasunak emateko asmoz, eguneroko izapideetan teknologia berriak txertatuz. Agiriak helbideratu gabe izanez gero, zergak eta tasak ordaintzeko beste bide bat izango da hau (edozein VISA txartelekin ere egin daitezke horrelako ordainketak). Isunak ordaintzeko ere balio du sistemak.

*Pagos municipales a través de Bizum.* El Ayuntamiento de Zumaia ha puesto en marcha el sistema de pago por Bizum, con el objetivo de facilitar a la ciudadanía la realización de los pagos mediante la incorporación de las nuevas tecnologías en la tramitación diaria. En caso de no tener domiciliados los recibos, de ahora en adelante se dispondrá de una nueva opción de pago de impuestos y tasas (también se pueden realizar con cualquier tarjeta VISA). El sistema también servirá para pagar las multas.



## 164 zumaiarrek jaso dute GLLa

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak premia puntualei erantzutea du helburu; batez ere, etxebizitzako gastuei (alokairua, hipoteka, argia, ura, gasa...). Aurten 164 zumaiarrek jaso dute laguntza; iaz baino gehiagok. Hirugarren urtez, laguntzei buruzko informazioa bidali da etxe guztietara. Beharra baduzu, jarri harremanetan Gizarte Zerbitzuekin: 943 86 22 00 / 632 44 22 56 edo [brankaharrera@zumaia.eus](mailto:brankaharrera@zumaia.eus).

*164 zumaiairras reciben la AES.* La Ayuda de Emergencia Social tiene como objetivo dar respuesta a necesidades puntuales, especialmente a los gastos de vivienda (alquiler, hipoteca, luz, agua, gas...). Este año han recibido la ayuda 164 zumaiairras, más que el año pasado. En caso de necesidad, póngase en contacto con los Servicios Sociales: 943862200 / 632442256 o [brankaharrera@zumaia.eus](mailto:brankaharrera@zumaia.eus).



## Emakume merkatariak aztergai

Udalaren laguntzaz, 1940tik 2020ra bitartean Alde Zaharrean egon diren saltoki txikien inbentarioa osatzen ari dira Maitane Subijana eta Miren Osa. Alde Zaharrean erosle zein saltzaile aritu diren emakumeak beren testigantza ematera gonbidatu dituzte. Horretarako, 676 95 39 97 telefono zenbakira deitu edo [mirentx.osa@gmail.com](mailto:mirentx.osa@gmail.com) helbidera idatzi behar dute zumaiarrek.

*Investigación sobre mujeres comerciantes.* Maitane Subijana y Miren Osa están completando con la colaboración del Ayuntamiento el inventario de pequeños comercios que han existido en la Parte Vieja entre 1940 y 2020. Las personas interesadas en participar en la investigación deberán escribir a [mirentx.osa@gmail.com](mailto:mirentx.osa@gmail.com) o llamar al 676 95 39 97.





## Unesco Eskola Elkartuen topaketak Zumaian

Uztaileko lehen astean ehundik gora lagun bildu ziren Zumaia ikastetxean, Unesco Eskola Elkartuen sareko topaketan baitan. Euskal Herriatik, Espainiako estatutik, Argentinatik zein Angolatik etorri dira hezkuntza munduko profesionalak, eta 2030 Agenda ahalbidetuko duten espazio eta metodologiak sustatzea izan dute helburu.

*Encuentros de Escuelas Asociadas Unesco en Zumaia. La primera semana de julio reunió a más de un centenar de personas en el colegio Zumaia, dentro de los encuentros de la red de Escuelas Asociadas Unesco. Profesionales del mundo de la educación procedentes de Euskal Herria, el Estado español, Argentina y Angola, han tenido como objetivo promover espacios y metodologías que posibiliten la Agenda 2030.*



## Komentuko bisita gidatuak

Eraikin berezia da komentua, eta eraberritze lanak hasi aurretik, bisita gidatuak egingo dira udan zehar. Bisita gidatua doakoa da, eta parte hartzeko turismo bulegoan eman beharko da izena, bisitaren eguneko 13:00ak baino lehen. Saio guztiak 19:00etan izango dira.

*Visitas guiadas al convento. El convento es un edificio singular, y antes de comenzar las obras para reformarlo como centro cultural, durante el verano se ofrecerán visitas guiadas. La visita guiada es gratuita y para participar habrá que inscribirse en la oficina de turismo antes de las 13:00 horas del día de la visita. Todas las visitas serán a las 19:00 horas.*



## Sorkuntza beka

Zumaia Udalak 5.000 euroko beka emango du artearen eta kulturaren arloko sormen lanak babesteko. Kultura, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak, fotografia, antzerkia, literatura, musika, dantza eta koreografia nahiz diziplina anitzeko lanak hartzen ditu kontuan deialdiak, eta proposamenak urriaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dira.

*Beca de creación artística. El Ayuntamiento de Zumaia concederá una beca de 5.000 euros para apoyar trabajos creativos del ámbito cultural y artístico. La convocatoria contempla trabajos tanto del ámbito de la cultura y las artes plásticas como audiovisuales, fotografía, teatro, literatura, música, danza y coreografía o multidisciplinares, y las propuestas deberán presentarse antes del día 5 de octubre.*





## Xafla berriak etheen izen zaharrentzat

Mapa toponimiko berrian udalak ahalegin berezia egin zuen etheen izen zaharrak biltzeko. Horietako batzuk eza-gutarazteko errotuluak jarri ziren 2020an, eta, orain, bigarren txandan, beste 18 errotulu jarriko dira.

*Nuevos rótulos para los viejos nombres de las casas. En el nuevo mapa toponímico el Ayuntamiento hizo un especial esfuerzo por recopilar los viejos nombres de las casas. En el año 2020 algunos de ellos fueron rotulados para darlos a conocer. Ahora, en la segunda tanda, se colocarán otros 18 rótulos.*



## Nagusiekin eta nagusientzat

Nagusien Mahaiak eta Zumaiako Udalak adinekoei zuzendutako egitarau oparoa prestatu zuten maiatzerako eta ekainerako. Hitzaldiak, tailerrak eta jokoak egin dituzte, besteak beste. Brankan ate irekien eguna eta 90 urteko zumaiarrei omenaldia ere egin dituzte. 2012. urtean sortu zen Nagusien Mahaia, udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikariek lankidetzan, eta adinekoen beharrak identifikatzea eta horiei erantzutea du helburu, nagusiekin eta nagusien alde arituta.

*Con y para las personas mayores. La Mesa de Mayores y el Ayuntamiento de Zumaia prepararon para mayo y junio un nutrido programa dirigido a las personas mayores. Entre otras actividades, han realizado charlas, talleres y juegos, tuvieron una jornada de puertas abiertas en Branka, y celebraron también un homenaje a los y las zumaiarras de 90 años.*



## EKE taldearen lehen urtea

Desgaitasunen bat duten haurrak kirolaren bidez gizarteratzea du helburu bost udalerrik abiatutako Eskola Kirol Egokituko taldeak. Bederatzi haurrek hartu dute parte taldearen lehen urtean, eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek. Ekimenak datorren urtean jarraituko du: izena nork bere ikastetxean eman behar du, baina tokian tokiko kiroldegian emateko aukera ere zabalduko da.

*Primer año del grupo EKE. El grupo de Deporte Escolar Adaptado (EKE), iniciado por cinco municipios, tiene como objetivo la integración social de los niños y niñas con discapacidad a través del deporte. Este primer año han participado nueve niños y niñas, y las personas encargadas de la organización lo han valorado positivamente. La iniciativa continuará el año que viene: la inscripción se realizará en los centros escolares, pero también se abrirá la posibilidad de hacerlo en los polideportivos locales.*





## San Telmoko igogailua

295.500 euro

Igogailuak San Telmo kalea eta Larretxo auzunea lotuko ditu eta nabarmen hobetuko du Larretxoko irisgarritasuna. Ondo bidean, abuztuan martxan egongo da.

Itzurunbidea eta Larretxo auzunea lotuko dituen igogailua egiteko prozesua ere aurrera doa. Udala proposamena aztertzen ari da orain, eta irailean emango du hurrengo pausoen berri.

*El ascensor unirá la calle San Telmo con el barrio de Larretxo y mejorará notablemente la accesibilidad de dicho barrio. Se prevé que esté operativo en agosto.*

*También avanza el proceso de construcción del ascensor que unirá Itzurunbidea con Larretxo. La propuesta está siendo estudiada por el Ayuntamiento, e informará de los próximos pasos en septiembre.*



## Igogailuaren goialdea hiritartzea

76.932 euro

Larretxoko bizilagunekin egindako bileran jaso zituen ekarpenak kontuan hartuta, igogailuaren goiko aldeko eremua ere hiritartu du udalak. Espaloiak zabaldu ditu, eta lanak baliatuta, Larretxo auzuneko 7. eta 13. atarien artean ur hornikuntzako sarea berritu du.

Inguruko irisgarritasuna hobetzeko, udala aztertzen ari da zer aukera dauden plaza berdearen bi ertzetan malda irisgarriak eginez igogailua eta Larretxoko plataforma laua elkartzeko. Azterketaren emaitzek esango dute lan horiek egin daitezkeen.

*Teniendo en cuenta las aportaciones recibidas en la reunión celebrada con los y las vecinas de Larretxo, el Ayuntamiento también ha urbanizado la zona alta del ascensor. Ha ampliado las aceras de la zona y ha aprovechado la obra para renovar la red de abastecimiento de agua entre los portales 7 y 13 de Larretxo.*

*Para mejorar la accesibilidad en la zona, el Ayuntamiento también está estudiando la posibilidad de que se pueda unir el ascensor con la plataforma plana de Larretxo, con pendientes accesibles en ambas márgenes de la plaza verde. Se realizarán estos trabajos en función del resultado de dicho estudio.*



## Besaulki eta zoru berriak Aita Mari antzokian

100.000 euro

Aita Mari antzokia Zumaiaiko kultur eskaintzaren eta askotariko ekitaldien bilgunea da. Erreferentziatzko lekua izanda, eta herritarrei zerbitzu hobea emateko, eraikinaren eta azpiegituraren egoera hobetzeko lanak egiten ari da udala. Guztira 246 besaulki berri izango ditu aurrerantzean Aita Mari antzokiak, eta besaulkien antolamendua araudiak ezartzen dituen neurrietara egokituko da. Gainera, besaulkiak kenduko direla-eta, aukeraz baliatu eta aretoko zoru guztia aldatuko da: eraginkortasun energetikoa hobetzeko, aretoko lurra isolatuko da, eta akabera berria emango zaio.

Lan horietaz gain, bestelako batzuk ere egingo ditu udalak, teilatuko egiturari, adibidez, egitura nagusiari suteen aurkako babesa emateko, bai eta eraikinaren mantentze lan orokorrak ere, margoketa lanak, esaterako. Aurreikuspenen arabera, antzokia abuztuan zabalduko da berriro.

*El teatro Aita Mari es el punto de reunión de la oferta cultural y actos diversos de Zumaia. Siendo un punto de referencia, el Ayuntamiento está realizando obras para mejorar el estado del edificio y de la infraestructura, para dar un mejor servicio a la ciudadanía. En total contará con 246 nuevas butacas, cuya ordenación se adaptará a las medidas que establece la normativa. Además, aprovechando que se retirarán las butacas, se cambiará todo el suelo de la sala: para mejorar la eficiencia energética, se aislará el suelo de la sala, y se le dará un nuevo acabado.*

*El Ayuntamiento realizará también intervenciones en la estructura del tejado, dando protección contra incendios a la estructura principal, así como trabajos de mantenimiento general del edificio (pintura, por ejemplo). Según las previsiones, el teatro se abrirá de nuevo en agosto.*

### Aurrerantzean, sarrerak Internet bidez ere bai

Aita Mari antzokiaren itxura berritzeaz eta erosotasuna hobetzeaz gain, aldaketa berriekin etorriko da irekiera. Izan ere, aurrerantzean, Aita Mari antzokiko ekitaldiarako sarrerak Internet bidez erosi ahal izango dituzte ikusentzuleek, sarrerakzumaia.eus webgunean. Eta sarrerak erosi bakarrik ez: atari digital berrian ekitaldiei buruzko informazioa kontsultatzeko aukera ere izango dute herritarrek.

*Además de renovar el aspecto del teatro Aita Mari y mejorar su comodidad, la apertura vendrá con nuevos cambios, ya que a partir de ahora las entradas para los actos del teatro Aita Mari se podrán adquirir también a través de internet, en la web sarrerakzumaia.eus. Además de comprar entradas, en el nuevo portal digital los y las ciudadanas podrán consultar toda la información sobre los eventos.*





## Irisgarritasuna hobetzeko lanak auzoetan

60.000 euro

Jadarren, Juan Belmonten eta Itzurunbidean espaloiak irisgarritasun araudira egokitu dira, eta lurrazpiko azpiegiturak berritu. Lan horietako batzuk brigadak egin ditu.

*Mejora de la accesibilidad en barrios. Se han realizado obras de adecuación de las aceras a la normativa de accesibilidad y renovado las infraestructuras subterráneas en Jadarre, en Juan Belmonte y en Itzurunbidea. Parte de esos trabajos han sido realizados por personal de la brigada.*



## TAO seinalizazioan hobekuntzak

33.850 euro

TAO araudia ahalik eta eraginkorrena izan dadin, seinalizazioa hobetzeko lanak egin dira: eremu berriak margotu eta izendatu dira, eta lau LED panel eta bestelako seinale batzuk jarri dira. Hargune elektrikoak brigadak egin ditu.

*Mejoras en la señalización OTA. Se ha mejorado la señalización: se han pintado y nombrado las nuevas zonas, y se han colocado cuatro paneles LED, entre otras nuevas señales. Las acometidas eléctricas han sido realizadas por la brigada.*



## Brankan hobekuntzak

19.600 euro

Eraikinaren beheko solairuan hobekuntza lanak egin dira suteen aurkako babes maila hobetzeko, eta zaintza kamerak instalatu dira. Hurrengo fasean lehenengo solairua hobetuko du udalak.

*Mejoras en Branka. En la planta baja del edificio se han realizado obras de mejora para aumentar el nivel de protección contra incendios. También se han instalado cámaras de vigilancia. En la siguiente fase el Ayuntamiento mejorará la primera planta.*



## Sute ahoak Joxe Mari Korta industrialdean

15.000 euro

Industrialdean bi sute aho berri jarri dira, lurpean. Suhiltzaileek mahukak bertan eransteko aukera izango dute, eta eremuko segurtasuna hobetzen du horrek.

*Bocas de incendios en el polígono industrial Joxe Mari Korta. Se han instalado dos nuevas bocas de incendio soterradas. Permitirán la incorporación de mangueras en el lugar, mejorando la seguridad de la zona.*



## Torreberrin hobekuntzak

14.700 euro

Torreberrin eraikineko sarrerako irisgarritasuna araudira egokitu da, eta eraikinak sarrera elektronikoa du orain. Gainera, igogailua berritzeko lanak egin dira, eta irailan jarriko da martxan.

*Mejoras en Torreberri. La accesibilidad a la entrada del edificio Torreberri se ha adaptado a la normativa y el acceso al edificio es ahora electrónico. Además, se han realizado obras de renovación del ascensor, y se pondrá en marcha en septiembre.*




## Tximistorratzak araudira egokitzea

11.570 euro

Aita Mari eraikinean, San Telmo ermitan, Artadiko elizan eta Sagarbide eskolan tximistorratzak araudira egokitzeko lanak egin dira.

*Adecuación de pararrayos. Se han realizado trabajos de adecuación al reglamento de los pararrayos del edificio Aita Mari, ermita de San Telmo, iglesia de Artadi y la escuela Sagarbide.*



## Elkarlangunea egokitzea

8.250 euro

Hogarreko lehenengo solairuan coworking edo elkarlangune zentroa prestatu da. Hiru espazio moldatu dituzte: geletako bat lan egiteko egokituko dute; sarrerako gune bat ere izango dute, office moduan erabiltzeko; eta hirugarren gune bat erabilera anitzekoa izango da, bilerak eta formakuntza saioak egiteko, besteak beste.

*Adecuación del espacio de coworking. En el primer piso de Hogar se ha organizado el centro de colaboración o coworking. Se han habilitado tres espacios: una zona de trabajo, otra de acceso que servirá también como office, y una tercera zona multiusos para reuniones y sesiones formativas, entre otros.*



## Bizikletentzat aparkaleku gehiago

470 euro

Herritarren eskaerei erantzunez, Eusebio Gurrutxagan bizikletak uzteko aparkaleku gehiago jarri ditu udalak.

*Más aparcamientos para bicis. Atendiendo a las peticiones de la ciudadanía, el Ayuntamiento ha habilitado más aparcamientos para bicicletas en Eusebio Gurrutxaga.*



# Udaleku eskaintza

Udalekuen helburua da Zumaiako haurrei aisialdian oinarritutako eremu hezitzailea eskaintzea, jolasa, elkarbizitza eta euskara ardatz hartuta. Adin tarteka haurrei egokitutako ekintzak egiten dira bertan: irteerak, jolasak, eskulanak, kirol ekintzak...

Zumaiako Udalaren udaleku eskaintza 2 eta 14 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduta dago, eta aski eskaintza zabala da. Uztail osoan zehar, 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzat udaleku irekiak antolatzen dira, eta 2 urtekoentzat udazaintza zerbitzua eskaintzen da.

Horiez gain, Musi-K udalekuak ere antolatzen dira, Sapere Aude Sinfonietarekin lankidetzan. Haurrei zuzendutako saio horietan nagusiki musika lantzen dute, baina badute lekua dantzak eta askotariko jolasak ere. Bestalde, aurtan, lehen aldiz, 10 eta 14 urte bitartekoentzako kirol udalekuak ere gehitu dira eskaintzara; kirol jarduera oinarri hartuta, haur eta nerabeen aisialdia modu aktiboan eta entretenigarrian lantzen dute horietan.

*Las colonias de verano del Ayuntamiento de Zumaia incluyen una amplia oferta dirigida a niños/as y adolescentes de entre 2 y 14 años. El objetivo de las colonias es ofrecer a los y las niñas de Zumaia un espacio educativo basado en el ocio y centrado en el juego, la convivencia y el euskera, en el que se realizan actividades adaptadas a diferentes edades: excursiones, juegos, manualidades, actividades deportivas, etc. •*



550 haur inguruk hartu dute parte aurtengo udalekuetan.



Udaleku irekietan ur jolasak egin dituzte hainbat egunetan.



Aurtan, lehen aldiz, kirol udalekuak antolatuta dira.

# ATZO GAUR DA

## Lehen hor zegoena ikusteko

Zumaia kale izendegiak hiru leku izen gehiago ditu maiatzetik. Izan ere, Gipuzkoako Erroten Egunean, Goiko Alberga eta Marearrota plazak izendatu zituen udalak, herritarren ondoan, eta ekitaldi bana egin zuten memoria berreskuratzeko. Fielatoa ere aurten izendatu dute hala ofizialki. “Superbotere horietako bat da ikusmenarena: aurrealdean orain daukaguna ikusten dugu, baina horretaz gain, gaitasuna daukagu lehen hor zegoena ere ikusteko”, esan zuen Imanol Azkue historialari eta idazleak Marearrota plazaren inaugurazioan. Izenek eta lekuek balio digute garai batekoa oroitzeko, ulertzeko, ikasteko eta ikusteko. Balio dezatela txoko horietan jarritako xaflek ere garai batekoak kontatzeko eta oroitzeko.

*El callejero de Zumaia tiene tres nuevos nombres de lugar más desde mayo. En el Día de los Molinos de Gipuzkoa el Ayuntamiento designó las plazas de Marearrota y Goiko Alberga, junto a los y las vecinas, y realizaron sendos actos para recuperar la memoria. El Fielato también ha sido nombrado oficialmente como tal este año.*

*“La vista es uno de esos superpoderes: enfrente vemos lo que tenemos ahora, pero además tenemos la capacidad para ver también lo que había antes”, dijo el historiador y escritor Imanol Azkue en el acto de inauguración de la plaza Marearrota. Los nombres y los lugares nos sirven para recordar, comprender, aprender y ver lo pasado. Que las pla-*

*cas colocadas en esos rincones sirvan también para contarlo y recordarlo.*

### Goiko alberga

Arropak garbitzeko lekuei deitu izan zaie Zumaian “alberga”. Hitz arabieratik dator eta gaztelaniaz “alberca” ur biltegiari esaten zaio.

Lehen, urik ez zegoen etxeetan, eta arropa kanpoan garbitzen zuten, harri zabal leun batzuetan. Albergak sozializatze guneak ere baziren, ordea, horietan elkartzen zirelako emakume asko, eta arropak garbitu bitartean kontu eta kantu ugari ibiltzen zituzten.

Goiko Alberga 1840an eraiki zuten orain Artxiboa dagoen tokian, eta

XX. mendean beste batzuk ere egon ziren Zumaia herrigunean: Beheko Alberga (Ardantzabide hasieran, 1889koa), Arroakalean (Iturrikoa baserriaren ondoan) eta Estazio aldean, Zubiberriaren ondoan.

*En Zumaia se ha llamado “alberga” a los lavaderos donde se limpiaba la ropa. Esa palabra proviene del árabe y en castellano “alberca” significa depósito de agua.*

*Antiguamente, como no había agua en las casas, la ropa se lavaba fuera, aprovechando unas piedras lisas. Los lavaderos eran espacios en que muchas mujeres se juntaban y socializaban, compartiendo historias y canciones mientras hacían la colada.*



Emakume batzuk goiko albergan (Zumaia FOTOTEKA).



El lavadero de Arriba se construyó en 1840 en el espacio que ahora ocupa el Archivo, y en el siglo XX existieron en el núcleo de Zumaia más lavaderos: el de Abajo (bajo la parroquia, de 1889), el de Odieta (junto a la casa Iturrikoa) y otro cerca de la Estación, al lado del puente Zubiberria.

## Marea errota

Garai batean itsasgorarekin batera ura Ardantzako bailaran gora igotzen zen, eta, marea errota bati esker, ur mugimendu hori energia sortzeko erabili zuten mendez mende. Errotaren aipamen idatzi zaharrena 1203koa da, eta 1885era arte aritu zen lanean.

60 m-ko presa edo zubi moduko batek parrokia aldea eta oraingo San Telmo kalea elkartzen zituen, eta seguru asko horregatik zuen Zubiaurre izena lehen auzo horrek.

Marea errotak bi errotarri zeuzkan; batekin garia ehotzen zuten eta bestearekin artoa. Presako Torrea ere esaten zitzaion etxeari.


*Hace tiempo, con la pleamar, el agua subía por el valle de Ardantza, y durante siglos aprovecharon esos movimientos para generar energía con un molino de mareas. La referencia escrita más antigua data de 1203 y sabemos que trabajó hasta 1885.*

*Una presa de 60 m unía la zona de la parroquia con la calle San Telmo, servía como puente, y es probable que el antiguo nombre Zubiaurre ("delante del puente", en euskera) provenga de ahí.*


*El molino de mareas disponía de dos piedras molidoras: una para trigo, otra para maíz. Al edificio del molino también se le llamaba Presako Torrea.*

## Fielatoa

Gazteleratik datorren izena da, eta kaseta edo etxola batzuk izaten ziren, salgaiak pisatu, osasun baldintzak egiaztatatu eta zegozkien zergak kobratzeko. Pisatzeko balantzari *fiel* esaten zioten, gazteleraz, eta hortik datorkio izena.



Zubiaurreko marea errota liburuko irudia (Rafael de Pilar, 2020).



Gerra Zibilaren garaiko argazkia (Erkibe kultur elkartea).

Zumaiako artxiboan horri buruzko aipamenik zaharrenak 1904koak dira, eta, haien arabera, tren geltokian ere bazegoen beste etxola bat. Duela gutxi arte eduki du baskula bat Fielatoak, gasolindegia-aren parean.

Zumaian esanahi berezia du toki horrek, hortik abiatu zirelako 1937ko otsailean kanporatu zituzten zumaia-rrak eramateko kamioiak. Gerora elkartoki modukoa izan da Fielatoa; esaterako, autoetan elkarrekin joateko batera edo bestera.

*En castellano se llama fielato a las casetas en las que se pesaban las mercancías, se controlaba su estado sanitario y se cobraban las correspondientes tasas. El término procede del fiel o balanza que*

*se usaba para el pesaje.*

*Las referencias al fielato más antiguas del archivo municipal datan de 1904, y según parece había otra caseta en la estación de ferrocarril. El Fielato ha contado con una báscula hasta hace poco, en frente de la gasolinera.*

*En Zumaia este sitio tiene un especial significado, ya que fue el punto de partida de los camiones que llevaron a muchas de las personas expulsadas en febrero de 1937. Posteriormente ha servido como punto de encuentro, para compartir coches, por ejemplo. •*

# elkarri entzun

## ehbildu

Legealdiaren azken txanpari ekitera goaz, eta gero eta nabariagoa da hori EAJren jarreran. PSE-EEren aldetik jarra zintzoa eta arduratsua ikusten den bezala, EAJ etengabe aukeren bila dabil, nondik prentsara aterako. Kurioso da; izan ere, beraiek urte luzez egin gabekoak orain presaka 3 urtean eginda izan behar omen genituen guk.

Zenbat urte eduki dute mojaxarren komentua utzita, ukitu gabe? Legealdi honetan eraikin horrentzako erabilera egokia kulturako talde eta eragileekin adostu, eta eraikina birgaitzeari ekin zaio. Zumaiak merezi duen kulturagunea izango du bertan, urteetan zain egon ondoren.

Kirol ekipamenduak utzita ditugula leporatzen digute, aurreko lau urteetan beraiek egin ez dituzten lanak egiteko exijituz. Bada, lanak egin dira itsas kiroldegian, ziklismoko lokalean, futbol zelaian eta gimnasioan, besteak beste. Hori gutxi ez eta kiroldegia eraberritzeko proposamena aurkeztu dugu, lau kaleko bigarren igerileku bat ardatz duena. Bide hori martxan jarri eta datorren legealdian zehar obra exekutatzea da asmoa.

Zenbat urtetan egon da zinema ukitu gabe? Hor ere lanak egin dira; besteak beste, butaka berriak ipintzea.

Zer esan hezkuntzaz? Urte luzez haurreskola barrakoi batean izan ondoren, Herri Eskolan haurreskola eta jantoki berria eraikitzeako akordioa lortu dugu eta eskolako sarreak oinezkoentzat egokitu eta bidegorri sarearekin lotu ditugu. Gainera, Mariantongo parkea estaltzeko prozesua martxan dago eta haurren parte hartzearekin parkea bera diseinatzen ari dira hilabete hauetan, datozen hilabeteetan eraikitzen hasteko.

Auzoez, zer esan? Urte luzeen ondoren Oikiak eta Artadik zuntz optikoa eta saneamendua izango dituzte, Estazioko eta Larretxoko espaloiak eta irisgarritasuna hobetu dira, eta hainbat urtetan falta izan dituzten bertakoentzako aparkalekuak dituzte orain Parolbideko bizilagunek. Axularren, berriz, urteetan eskatu zituzten abiadura mantsotzeko neurriak hartu dira errepidean. San Jose auzoan aspaldiko eskaera bati erantzun eta espaloiak egokitu dira atariak igogailuak egin ahal izateko, baita Juan Belmonte kalean ere.

Horiek guztiak eta gehiago egin dira legealdi honetan. 98 proposamen aurkeztu genituen legealdi hasieran, eta EAJk zioen erdiak egiteko nahiko lan izango genuela. Orain, berriz, ezer ez da nahikoa antza. Horrela da politika eta alderdien arteko jokoa, baina zumaiarrek badakite zer egin den urteetan ukitu gabe eta zer hobekuntza egin diren. Gehiago nahi dugu, eta lanean jarraituko dugu.





Udan murgildu gara, eta udal gobernuaren prebisio falta agerian geratu da. Hondartza zerbitzuak: toldo, hamaka gordailu eta ur beroko dutxarrik gabe; kantineko mahai eta aulkiak herdoilak jota eta itxura negargarriarekin.

Itzurungo igogailuaren proiektuaren bozketa ere hizpide izan dugu; herritarren eta EAJren ezadostasuna agertu dugu. Oposizioari aurkeztu eta ekarpenak egiteko aukerarik gabe ekin diote.

Komentua ere hor dugu. EH Bilduk plenoan aurkeztu zue-nean, %75eko dirulaguntza eskatuko zuela eta hori lortu ezean ez zela egingo esan zuen. Orain, dirulaguntza jasoko ez dela jakin arren, aurrera egin dute, 5 milioi euro pasatxoko aurrekontuarekin (barne ekipamenduetarako beste 1,6 milioi € inguru beharko dira). Ez gaude proiektuaren aurka; baino udal gobernuaren kudeaketa desegokia salatzen dugu.

EAJk, 2022ko aurrekontuen emendakinetan, Marianon parkea estaltzea eskatu zuen eta onartu zitzaion; baina oraindik ez da pausorik eman. Kirol ekipamenduetarako inbertsio handiagoa ere eskatu genuen, eta urtea aurrera doa eta oraindik gauza gutxi egin da.

Ekainean, Egutera proiektua aurkeztu zen; eta nahiz eta EAJren iritziz udal gobernuaren planteamendua proiektuaren balioetatik aldentzen den eta gestioa desegokia izan, gure atxikimendua adierazi dugu eta herritarrak animatzen ditugu, parte hartu eta beren hondar alea jartzera, energia berriztagarrien alde.

Merkataritza Eraberritzeko Plana idazteko ere ezer gutxi egin da zazpi hilabete hauetan. Udal gobernuak *coworking* espazioa sortu du UKUEren baliabideekin eta oposizioarekin kontaktu gabe. Indar eta baliabide berak erabili izan balitu, Merkataritza Plana martxan legoke jada.

EAJk hiru urtez estazioan bizikleten aparkaleku estalia egiteko eskatu ondoren, ekaineko plenoan 30.000 €-ko kreditu aldaketa onartu zen eta badirudi aurrera doala.

Berriro ere, agerian da EH Bilduren geldotasuna eta gestio kaxkarra. Konturatzeko urtea amaituko da eta, hitzartutako proiektuetatik, zenbat exekutatu dira?

EAJ Udal Taldekook herriaren eta herritarren alde lanean jarraituko dugu.

*Nos encontramos en pleno verano, pasando la segunda ola de calor. Las temperaturas están cambiando y lo podemos percibir claramente; negar el cambio climático es una barbaridad que no podemos asumir. Debemos tomar medidas inmediatamente, y a nivel local como zumaiarras podemos y debemos hacerlo. De hecho ya se ha comenzado y con ello ganaremos todos: quienes vivimos hoy en el municipio y sobre todo nuestros hijos e hijas a los que les debemos un entorno natural adecuado.*

Eta nola egin? Dagoeneko urratsak egiten ari dira norabide egokian, gure itsasoa zaintzen, adibidez hondakinik gabeko hondartzekin, baina baita horiek estolderiaren bidez saihesten ere, Aldundiko Ingurumen Saila dagoeneko garatzen hasi dena bezalako politika aktiboekin. Energia sortzeko eta erabiltzeko formula berriekin, udalak eguzki panelen proiektuan lantzen duen bezala, udalerrian mugikortasun jasangarriarekin, garraiobide publikoak, energia garbiak erabiliz, edo, besterik gabe, horretarako baldintza egokiak sortuz zein udalerriko eskolek garatzen dituzten ingurumen kontzientziatioko programen bidez.

*Pero además hay otras cuestiones que ayudan a generar un municipio sostenible. En este sentido son importantes los presupuestos participativos en los que la ciudadanía se sienta involucrada en los programas que vaya a desarrollar el ayuntamiento. La aplicación de políticas de igualdad para disminuir y acabar con las diferencias en la ciudadanía.*

Hasieran esan dudana bezala, udan gaude, turisten etorrera bete-betean. Haien etorrera eta egonaldia arautu behar ditugu, guztion arteko bizikidetzaren egokia lortzeko; horregatik, etxebizitza turistikoaren erregulazioa oso garrantzitsua da. Baita Zumaiako merkataritzarako planak sortzea ere, merkataritzari balioa eman diezaioten, udala egiten ari den moduan.

*Feliz verano a todos y todas, disfrutemos de Zumaia y sigamos trabajando por ella.*

# KLISK! KLISK! KLISK!

## 1. Raixta Eguna Emakumeon\* Etxean

'Elkarrekin piztutakoa' ospatzeko, ikasturte amaierako egun osoko festa egin zuten Emakumeon\* Etxean. Emakume sortzaileen erakusleihoa, musika eta bestelako arte espresioen erakustaldiak, bazkari herrikoia eta kalejira egin zituzten, besteak beste.

## 2. Mahai jokoak Hogarrean

'Zumaia nagusiekin, nagusientzat' programaren barruan, mahai joko, igel eta toka txapelketak egin zituzten maiatz amaieran herriko zenbait lagunek. Sari banaketarekin eta askariaren amaitu zuten jarduera.

## 3. Lucia Lacarrari aitortza

Sanpedroetako bandera igoerako protagonista Lucia Lacarra dantzaria izan zen. Azken urteotan egindako ibilbide oparoaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuten danborradako kideek.

## 4. Kaleko pintura lehiaketa

Udane Juaristi azkoitiarrak irabazi zuen XIX. Kaleko Pintura Lehiaketa, eta zumaiarrek aurkeztutako lanen artean, berriz, Alaia Azkuerena gustatu zitzaion gehien epaimahaiari. Guztira 30 margolarik hartu zuten parte.

## 5. Sexberdinak, gurpildun aulkitik

Telmo Irureta eta Aitziber Garmendia aktoreek *Sexberdinak* antzezlanaren bi emanaldi berezi eskaini zituzten ekainean. Geuretik Sortuak ekimenaren baitan sortu zuten lana.

## 6. Kirolariak protagonista txupinazoan

Sanpedroetako txupinazoan Pulpo eta Zumaia kirol elkarteetako kideak izan ziren protagonistak. Horiekin batera izan ziren azken hilabeteotan lorpen ederrak egin dituzten herriko hamaika kirolari.

## 7. Sankristobalak Narrondon

Sanpedroen ondoren iritsi ziren Narrondoko San Kristobal jaiak. Ekitaldi ugari egin zituzten, tartean tortilla patata txapelketa.



Argazkia: Arnaitz Rubio







Argazkia: Baleike

## UZTAILA

**27, ASTEAZKENA**  
Musika Jaialdiaren  
aurkezpena  
**2021eko KLARINETE  
MARATOIKO LAUKOTE  
IRABAZLEAK**  
19:00 Mari kalea

**29, OSTIRALA**  
IKUSKIZUNA  
**MUSI-K UDALEKUEN  
AMAIERA**  
12:00 Komentua

**30, LARUNBATA**  
Musika Jaialdia  
**ZUMAIKO MUSIKA  
BANDA ETA ALDAPEKO  
BASQUE LATIN JAZZ**  
20:00 Odieta

**29an HASI ETA  
ABUZTUAN ZEHAR**  
**L. DINASTIA ETXABE  
TXAPELKETA**

## ABUZTUA

**1, ASTELEHENA**  
Musika Jaialdia  
**SAN PEDRO ABESBATZA  
ETA SAPERE AUDE:  
HESIA URRATURIK**  
20:00 Zumaiena

**2, ASTEARTEA**  
Musika Jaialdia  
**OPERA PROIEKZIOA**  
20:00 Aita Mari

**3, ASTEAZKENA**  
Musika Jaialdia  
SOLASALDIA  
**MUSIKA MARGOTUZ**  
IKER GONZALEZ  
20:00 Oxford aretoa

**4, OSTEGUNA**  
Musika Jaialdia  
HAURRENTZAT  
MUSIKALDIA  
**MATRAKA CULINARY**  
TRAKA MATRAKA  
19:00 Odieta

**5, OSTIRALA**  
Musika Jaialdia  
DANTZA  
**ICEBERG**  
NERI(H)ARI  
**ALIVE**  
LASALA  
20:00 Odieta

**7, IGANDEA**  
Musika Jaialdia  
DONOSTIAKO MUSIKA  
HAMABOSTALDIA  
**DUO CASADÓ**  
20:00 Parrokia

**11, OSTEGUNA**  
TAILERRA  
**HONDARREZKO  
ESKULTURA**  
11:00-14:00 Santiago  
hondartza

**14, IGANDEA**  
XLVII. ARRANTZA  
LEHIAKETA  
**KABRA ETA DONTZEILAK**  
07:00-12:30

XLVIII. ARRANTZA  
LEHIAKETA  
**ARRAIN TXIKIAK**  
10:30-13:30  
IKUSKIZUNA  
**TANGO**  
19:30 Eusebio  
Gurrutxaga plaza

**15, ASTELEHENA**  
ANTZERKIA  
**NAO-NOW-NAU**  
**BARRE TALDEA**  
19:30 Odieta

**25, OSTEGUNA**  
TAILERRA  
**HONDARREZKO  
ESKULTURA**  
11:00-14:00 Santiago  
hondartza

**26, OSTIRALA**  
KONTZERTUA  
**GOXUA'N SALSA**  
22:30 Eusebio  
Gurrutxaga plaza

**27, LARUNBATA**  
**LABORAL KUTXA UDAKO  
EMAKUMEEN TORNEOA**

## IRAILA

**3, LARUNBATA**  
DANTZA GARAIKIDEA  
**BASOA**  
19:30 Odieta

**8, OSTEGUNA**  
**"MUSIKA PIXKAT  
BIZITZAI"**  
19:00 Itzurun hondartza

**10, LARUNBATA**  
**IX. ZUMAIKO TRIATLOIA**  
15:20

## ERAKUSKETAK DEIALDIAK

OXFORD ARETOAN

**Uztailak 28 -  
Abuztuak 10**  
Txuri Beltzeko  
Argazki Lehiaketa

**Abuztuak 13 - 29**  
UDA  
Aran, Julian eta Anton

**Irailak 2 - 18**  
IF-Matxikote

**Uztailak 27 - Abuztuak 7**  
XXXVIII. EDIZIOA  
**ZUMAIKO MUSIKA  
JAIALDIA**

**BISITA GIDATUAK**  
Geoparkeko ondarea  
ezagutzeko bisita  
gidatuak. Informazio  
gehiago eta erreserbak:  
[www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus)

## FESTAK

**Abuztuak 6**  
**GALA EGUNA**  
**Abuztuak 12**  
**EUSKAL JAIA**

**Abuztuak 20**  
**KUADRILLA EGUNA**  
**Abuztuak 24 - 28**  
**OIKIAKO JAIK**

**Irailak 17**  
**OLARRO EGUNA**

**Irailak 29 - Urriak 1**  
**SAMIELAK**

Instagram: @ZumaiAgenda  
Twitter: @ZumaiAgenda  
Facebook: Zumai Agenda